



EBAZPENA, 2020ko martxoaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatekan kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeak (salbu eta erregimen orokorreko heziketa-zikloak ematen dituztenak) deitzen dituen hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2020-2021 ikasturtean (IE1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza).

Heziberri 2020 Planaren “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak” barruan hartzen ditu 2020 Europako Esparruan ezarritako helburuekin zerikusia duten jarduteko ildo estrategiko nagusiak. Proiektu horrek paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da.

Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren arabera, hauek garatu behar dituen gaitasunen profil egokia eduki behar dute euskal hezkuntza-sistemako irakasleek, beren egitekoak eta lanak baldintza onenetan bete ahal izateko. Honela bada, irakasleen prestakuntzaren helburua da behar den gaitasun-profila erdiestea ikasleek irteera-profilean ezarritako gaitasunak eskura ditzaten. Hortaz, hezkuntza-arloan eskumena duen sailak bultzatutako prestakuntza-jardueren ezaugarriak, besteak beste, honako hauek izango dira: hezkuntza berriztatze proiektuak sustatuz bikaintasuna sustatzea eta profesionalen arteko lankidetzaren prozesuei laguntzea (berdinen arteko prestakuntza, sareak sortzea).

Testuinguru horretan, Hezkuntza Sailak, 236/2015 Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana onartu du. Plan horretan jasotzen den ildo estrategikoetako bat da «Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza» bultzatzea. Unibertsitatekan kanpoko irakasleen etengabeko prestakuntzarako Planaren lehentasuneko jardun-ildo bat ere bada. Nazioarteko ikerketek bat egiten dute esatean aldaketaren eragile nagusi baten, hau da, irakasleen mende dagoela hezkuntza hobetzeko asmo duen ekimen oro, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzaren mende baitago hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza. Honek ekartzen du gogoetako, gaurkotzeko eta heziketa-zereginaren inguruko hobekuntzako eta komunitate hezitzaile guztiarekin lotutako eskola-testuinguruko ikasketara prozesu jarraitua bultzatzea.

Horregatik, proposatzen da prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak eta -proiektuak ikastetxeen barrutik eta haien premietatik abiatzea, soluzioak ikastetxean bertan aplikatu daitezkeen, inpaktu nabaria izan dezaten, hasierako egoera aldatzen dela ikusteko gisan. Hori dela eta, Hezkuntza Sailak, irakasleen etengabeko prestakuntza berrikuntzaren bidetik eramateko, ikastetxearen ohiko dinamikan inpaktu positibo bat sorraraziz eta lan-jardunbide egokiak partekatuz, bai ikastetxean bertan bai beste ikastetxeekin, eta horrela «inter pares» prestakuntzaren balioa azpimarratuz.

Hori horrela izanik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuan eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera, honako hau



EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko edozein maila eta motatako irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoak diruz hornitzea (salbu eta erregimen orokorreko heziketa-zikloak ematen dituztenak), hezkuntzaren bikaintasuneranzko honako prestakuntza-proiektu motak egin ditzaten 2020-2021 ikasturtean:

- Berrikuntza-proiektu integralak
- Curriculumama aberasteko proiektuak
- Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak
- «Partekatuz ikasi» esperientziak

2. artikulua. – Erakunde onuradunak.

Deialdi honetako diru-laguntzen erakunde onuradun izan daitezke Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko edozein irakaskuntza-maila edo mota emateko baimena dutenak, erregimen orokorreko Heziketa Zikloak soilik ematen dituztenak izan ezik.

Ikastetxe osoari eragiten dioten proiektuak aurkezten dituzten ikastetxe publiko integratuak (IPI) bereizitzat hartuko dira deialdi honi lotutako baliabide-zuzkidurari dagokionez.

3. artikulua. – Diru-zuzkidura eta laguntzak emateko prozedura

1. Helburu hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrean helburu horretarako ezarritako aurrekontu-sailen kontura, 600.000 euro bideratuko dira; eta horrez gain, 576.158 eurotan baloratutako giza baliabideak (irakasleak).

2. Hornidura hori honela banakatuta geratzen da, diruz lagun daitezkeen proiektu-modalitateen eta lurralde historikoen arabera:

- a) 152.000 euro berrikuntza-proiektu integraletarako, lurraldeka honela banatuta: 24.400 euro Araban, 68.400 euro Bizkaian eta 59.200 euro Gipuzkoan.
- b) 40.000 euro curriculumama aberasteko proiektuetarako.
- c) 290.000 euro hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuetarako (46.500 euro Arabarako, 130.500 euro Bizkairako eta 113.000 euro Gipuzkoarako).
- d) 118.000 euro «Partekatuz ikasi» esperientzietarako.

3. Lehiaketa bidezko prozeduraren bidez esleituko da lurralde historiko bakoitzeko eta diruz hornitu daitezkeen proiektu-mota bakoitzeko zenbatekoa. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehentasunak finkatzeko, eta, horretarako, I. eranskineko balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 14. artikulua ezartzen duen gutxieneko puntu-kopurua lortzen dutenen artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortzen duten puntu-kopuruari jarraituz hornituko dira diruz, goitik behera, onuradunen gehieneko muga bete arte edo, dagokionean, dagokion prozedurari esleitutako diru-kopurua agortu arte. Berdinketarik badago, honako hauek



izango dute lehentasuna: 2019-2020 ikasturtean deialdi honen babespean finantzaketa ekonomikorik lortu ez zuten ikastetxeen proiektuek, (salbu eta bigarren edo hirugarren urtekoak diren curriculumak aberasteko proiektuek eta berrikuntza-proiektu integralek). Haien artean ere berdinketarik badago, honako hauek izango dute lehentasuna: ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeek.

4. Berrikuntza-proiektu integralei dagozkien prozedurak ebatziko dira lehenik eta behin, eta prozeduraren batean esleitutako diru-hornidura agortzen ez bada, bai eskatutako baldintzak betetzen dituzten proiektu integral nahikoa aurkeztu ez delako bai eman diren zenbatekoak gehienez eman daitezkeenak baino baxuagoak direlako, soberan geratzen den zenbatekoa lurralde historiko horretako hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuei dagokien hornidurari gehituko zaio. Bigarrenik, curriculumak aberasteko proiektuei dagokien prozedura ebatziko da. Hirugarrenik, jardunbide egokien esperientziei dagokien prozedura ebatziko da. Dirurik gelditzen bada «Partekatuz ikasi» esperientziei dagokien prozedura ebatzitaikoa, dagokion lurralde historiko bakoitzari hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuetarako esleitutako kopuruari gehituko zaio sobera geratzen den zenbatekoa, proportzioan. Azkenik, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuei dagozkien prozedurak ebatziko dira. Era berean, baldin eta dirurik gelditzen bada hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuei dagokien prozeduretako bat ebatzitaikoa, gainerako lurralde historikoei esleitutako kopuruari gehituko zaio sobera geratzen den zenbatekoa, proportzioan. Hala ere, ikastetxe bati prestakuntza-proiektu bat ematen bazaio eta aldeztu aurretik ikastetxea "Partekatuz ikasi" esperientzia baterako hautatu bada, esperientzia horren esleipena berrikusi behar dela kontuan hartuko da beti, 8.4 artikuluan adierazitako kasua betetzeko.

4. artikulua. – Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diru-laguntzen zenbatekoa

1. Ikastetxe bakoitzak proiektu mota bakarrerako finantzaketa eskuratuko du deialdi honen kontura (berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak), eta, dagokionean, «Partekatuz ikasi» esperientzia baterako finantzaketa ere eskuratuko du. Nolanahi ere, 1. artikuluan jasotako modalitate bakoitzerako eskabidea aurkeztu daiteke. Kasu horretan, honela jardungo da:

- Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkeztu badu eta bi proiektuen edukia bera bada, aukeraketa-prozeduretatik kanpo geratuko dira biak.
- Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkeztu badu eta bi proiektuen edukia ezberdina bada, berrikuntza-proiektu integrala baloratuko da lehenik, eta, dirurik ematen bazaio, curriculumak aberasteko proiektua edo hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektua ez dira sartuko balorazio-fasean, eta dagokion esleipen-prozeduratik kanpo geratuko dira.

2. Zer proiektu finantzatzeko ematen den dirua, hura garatzeko eta gauzatzeko zuzeneko gastuak ordaintzeko baino ez da erabiliko diru-zuzkidura; nahi izanez gero, gastu guztiak ordaintzeko, hala nola hizlariak kontratatzeak eta proiektuan parte hartzen duten irakasleek haren barruko jarduerak egiteak. Prestakuntza-jardueraren gastu gisara hartu ahal dira honako hauek: prestakuntza-jardueraren kostua –prestakuntza ematen duen erakundearen aurrekontuaren arabera–, prestakuntzarako laguntza-material bibliografikoa eta hizlariaren lekualdatzeak eragindako dietak edo ostatu- edo jan-edanetarako gastuak, prestakuntza ematen duen erakundeaz kanpokoa denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen lekualdatzeetarako edo otorduetarako gastuak. «Partekatuz ikasi» esperientziei dagokienez, ordea, aukera izango da diru-zuzkidura esperientzia batean parte hartzen duten ikastetxeen artean ibiltzeko gastuak ordaintzeko baliatzeko.



3. Proiektuaren barruan diruz lagun daitezkeen gastuen % 100 finantzatzeko dira, honako muga hauen barruan:

- 3.000 euro, berrikuntza-proiektu integral eta curriculumak aberasteko proiektu berrientzat edo bigarren urtea gauzatzeko.
- 2.000 euro, aurreko deialdietan modalitate horretan diru-zuzkidura lortu zuten berrikuntza-proiektu integralen eta curriculumak aberasteko proiektuen hirugarren urteak gauzatzeko.
- 2.000 euro, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuetarako.
- 800 euro «Partekatuz ikasi» esperientzietarako.

5. artikulua. – Proiektuak baztertzeko arrazoiak.

Baztertu egingo dira deialdi honetako baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak, bai eta honako hauek ere:

a) *“IE3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztasunaren baita”* eleaniztasuna bultzatzeko lerroaren ildoko berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak, lerro hori beste deialdi batzuen barruan baitago.

b) *“IE4. Ikasmaterialak eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak”* lehentasunezko lerroaren ildoko berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak, lerro hori beste deialdi batzuen barruan baitago.

c) Ikastetxe batek aurkezten dituen berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta haien edukia modalitate baterako baino gehiagorako berdina bera bada.

d) Irakasleentzako jarduerak bakarrik garatzen dituzten eta irakaskuntza-lanaren ondorio diren berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta ikastetxeko ohiko jardunaren parte badira eta ez irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena.

e) Hiru ikasturtetan zehar garatu diren berrikuntza-proiektu integralak.

f) Erregimen orokorreko heziketa-zikloi baina ez dagozkien hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.

g) Heziketa-zikloi baina ez dagozkien hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta aurkezten dituzten ikastetxeek horrelako proiektuak egiteko zuzkidurarik eskuratu bazuten aurreko bi ikasturteetan (2018-2019 eta 2019-2020) eta proiektua berria ez bada edo aurreko ikasturtean landutako gaiak garatzen ez baditu.

h) «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeak ez baditu haiek aurrera eramateko hiru pertsona gutxienez.

i) «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeek esperientzia berean parte hartzeko dirua eskuratu bazuten aurreko bi ikasturteetan (2018-2019 eta 2019-2020).

6. artikulua. – Berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak



1. Deialdi honetan, berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak honela ulertuko ditugu:

a) Ikastetxeak bultzatu nahi duen hezkuntza-ereduaz sakon hausnartzeko proiektuak dira hezkuntza berriztatzeko proiektu integralak, eta aldatu nahi den hezkuntza-jardueraren zeharkako alderdi nagusiei ekitea dute helburu. Garrantzitsuak izateagatik, ikasturte bat baino gehiago behar dute horrelako gaiak, baita hezkuntza-komunitatearen akordioa ere. Heziberri 2020 Planaren esparruan, berrikuntza-proiektu integralek prestakuntza-jarduerak proposatzeko eta zentroaren hezkuntza-ereduaren gainean hausnartzeko aukera ematen diete ikastetxeei, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan beharrezko hobekuntzak sartzeko, gaitasunetan oinarritutako ikuspegitik. Bi ikasturte iraungo dute gutxienez, eta hiru gehienez. Proiektuaren epea bukatutakoan, ikastetxeak beste ikastetxeei aurkeztu ahal izango die haien esperientzia «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.

b) Curriculumak aberasteko proiektuak dira ikasgelan metodologia aktiboak ezartzea, eta maila goreneko gaitasunak izan edo ez, ikasle guztien gaitasun bikainak edo berariazko talentuak antzemateko, artatzeko eta aberasteko jarduera-programak garatzea helburu duten horiek, ikasleengan ikasteko eta lorpen pertsonala eta kolektiboa izateko motibazioa pizteko. Proiektuak eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukera ere jaso ahal izango du, baldin eta egiten diren jardueren % 25 baino gehiago ez badira.

Curriculumak aberasteko proiektuak hiru ikasturtetan egingo dira. Lehenengoan, irakasleek prestakuntza jasoko dute curriculumak aberasteari, gaitasun bikainei eta askotariko adimenei buruz eta ikastetxean ikaste-prozesuetan behar desberdinak dituzten ikasleei antzematen ikasiko dute. Bigarren urtean, proiektuak ikasleenganako arreta eta ikasgelan curriculumak aberasten lagunduko duten metodologia aktiboen garapena izango ditu ardatz. Hirugarren urtean, proiektuaren baliozkotzea eta emaitzen ebaluazioa egingo dira, proiektuan ezarritako adierazleen arabera. Proiektuaren epea bukatutakoan, ikastetxeak beste ikastetxeei aurkeztu ahal izango die haien esperientzia «Partekatuz ikasi» modalitatearen bidez, ikastetxe tutore gisa.

2. Zenbait ikastetxek elkarrekin egindako berrikuntza-proiektu integral bat egiteko eskaera onartuko da (ikastetxe arteko berrikuntza-proiektu integrala). Ikastetxe batek aurkeztuko du eskabidea: espedientea kudeatzeko helburuetarako, proiektuan parte hartzen duten ikastetxe guztiak ordezkatzeko ditu, eta, hortaz, hark eskuratuko du dirua eta hark aurkeztuko du justifikazioa. Esleitzen den zenbatekoa ez da izango handiagoa eskaera ikastetxe artekoa izateagatik.

3. Hezkuntza berriztatzeko proiektu integralek eta curriculumak aberasteko proiektuek ikastetxeko hezkuntza-proiektua, irakurketa-plana eta urteko-plana izango dute erreferentetzat – ebaluazio diagnostikoaren ondorio da ikastetxeko urteko-plana –, eta Hezkuntza Sailak finkatutako oinarritzko gaitasun edo ildo nagusi bati edo gehiagori helduko diote. Interesa duen ikastetxeak bere esku ezarritako <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2020> aplikazio informatikoan, proiektu integralaren datu teknikoak eta aurrekontuari buruzkoak bete beharko ditu, eta ikastetxearen urteko-plana erantsiko dio.

4. Nola hezkuntza berriztatzeko proiektu integralek hala curriculumak aberasteko proiektuek honako atalak izan beharko dituzte:

- Diagnostikoa
- Helburu estrategikoak, proiektuak irauten duen bitartean garatuko dira.
- Helburu orokorrak, ikasturtean garatuko dira.
- Hartzaileak



- Gauzatuko diren ekintzak, irakasleentzako prestakuntza-jarduerak barne
- Aurrekontua
- Plangintza eta gauatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak.
- Proiektua ebaluatzeko irizpideak eta emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak

5. 2018-2019 eta/edo 2019-2020 deialdietan berrikuntza-proiektu integral bat egiteko diru-laguntza eskuratu zuten eta 2020-2021 ikasturtean ere diru-laguntza eskuratu nahi duten ikastetxeek aurreko puntuan aipatutako atalak adieraziko dituzte jarraipen-eskabidean, proiektuaren bigarren edo hirugarren urteari dagozkionak.

6. Nola hezkuntza berriztatzeko proiektu integralean hala curriculumak aberasteko proiektuan sartuta egon behar du klaustro osoak. Proiektu bakoitzak gutxienez 45 ordu izango ditu garatzeko eta gauatzeko.

7. Nahiz eta proiektu mota hauen iraupena (berrikuntza-proiektu integralak eta curriculumak aberasteko proiektuak), hezkuntza-mailan, ikasturte bati dagokiona baino luzeagoa izan, eskatutako diru-laguntza 2020-2021 ikasturterako bakarrik izango da. Beraz, hurrengo ikasturteetan proiektuak abiarazteko laguntza ekonomikorik beharko balitz, hori egiten diren urteroko deialdietan eskatu beharko da.

7. artikulua. – Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak

1. Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuen helburua da ikastetxean garatzen den hezkuntza-jardueraren arloren batean ekitea eta hor esku hartzea, ikasturte bakar baten barruan. Heziberri 2020 Planaren esparruan, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuek zeharkako gaitasunak lortzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren inguruan prestakuntza-jarduerak proposatzeko aukera ematen diete ikastetxeei, eta, era berean, aukera eskaintzen diete ikasleek eskuratutako jakintzak praktikan jartzeko eta gaitasunetan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik edukitik esanguratsuenak hautatzeko egoera-arazoak aztertzeko.

2. Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuek kontuan izango dute ikastetxearen hobekuntza globala, eta, hortaz, honako hauek izango dituzte erreferentzia nagusizat: batetik, ebaluazio diagnostikotik sortzen den urteko-plana eta, bestetik, Hezkuntza Sailak finkatutako ildo nagusiak. Gainera, arreta berezia jarriko dute irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan eta oinarritzko gaitasunen garapenean. Gutxienez hezkuntza-etapa batean aplikatuko da eta hango irakasleek parte hartu beharko dute. <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2020> estekako aplikazio informatikoan, proiektu integralaren edo hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuaren datu teknikoak eta aurrekontuari buruzkoak adieraziko dituzte ikastetxeek, eta, dagokionean, ikastetxearen urteko-plana erantsiko dute.

Proiektuak honako atal hauek izan beharko ditu:

- Diagnostikoa
- Helburu orokorrak
- Hartzaileak
- Gauzatuko diren ekintzak, irakasleentzako prestakuntza-jarduerak barne
- Aurrekontua



- Plangintza eta gauatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak.
- Proiektua ebaluatzeko irizpideak eta emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak

3. Ez da eskabiderik onartuko baldin eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak 2017/2018, 2018/2019 edo 2019/2020 deialdian ikastetxeek berek aurkeztutako proiektuen errepikapen soila badira.

4. Hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak eragiten dien irakasleen % 80 inplikatu behar ditu gutxienez, eta proiektuko ataza bakoitzean parte hartzen duten pertsonak kontuan hartuko dira. Proiektu bakoitzak gutxienez 30 ordu izango ditu garatzeko eta gauatzeko.

8. artikulua. – «Partekatuz ikasi» esperientziak

1. «Partekatuz ikasi» esperientziak irakasleak bikaintasunerako prestatzeko modu bat dira: ikastetxe batek laguntza eta orientabidea eska diezaiokie ikastetxe tutore bati, bikaintzat jotzen diren eta eredugarriak diren praktika pedagogikoen berri izateko eta haiek gauatzeko lehenengo pausoak emateko. <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2020> estekako aplikazio informatikoan, hala dagokionean, dokumentu bat erantsiko dute, «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartzeko arrazoiak azaltzeko.

2. Ez da «Partekatuz ikasi» esperientzia jakin batean parte hartzeko eskabiderik onartuko baldin eta ikastetxeak esperientzia berean parte hartu eta horretarako dirua eskuratu bazuen 2017/2018, 2018/2019 eta 2019/2020 ikasturteetan. Ikastetxe batek aurreko bi ikasturteetan "partekatuz ikasi" esperientzia desberdinak egin baditu, bere eskabidea modalitate horretarako azken esleipen-aukera gisa soilik hartuko da kontuan, hau da, esperientzia bat esleituko zaio, baldin eta modalitate horren bidez inoiz dotaziorik lortu ez duten beste ikastetxe batzuen eskaerarik ez badago.

3. Deialdi honen II. eranskinean datoz ikastetxe eskatzaileen eskura dauden «Partekatuz ikasi» esperientziak eta erreferentziazko ikastetxeak. Eskabidean, ikastetxe bakoitzak adieraziko du zer «Partekatuz ikasi» esperientzietan parte hartu nahi duen; gehienez, hiru adieraziko ditu, eta bere lehentasunaren arabera ordenatuko ditu. Ez da onartuko II. eranskinean ez dauden jardueretarako eskabiderik.

4. «Partekatuz ikasi» esperientzia baterako eskabideak gehiegizkoak badira ikastetxe tutoreen ahalmenetarako, honako hauek izango dute lehentasuna, metodologiak berri ikastetxe gehiagok izan dezaten: lehenik, aurrez esperientziarekin zerikusirik izan ez duten eta erreferentziazko ikastetxeekin lotutako prestakuntza-saio eta mintegietan parte hartu ez duten ikastetxeak. Bigarrenik, 2020-2021 deialdian hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektu bat egiteko finantzaketarik lortzen ez dutenak. Eta, azkenik, ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeak. Ikastetxeek lehendabiziko tokian eskatu duten esperientzian parte hartzeko finantzaketarik eskuratzen ez badute, bigarrenetan eskatu duten esperientzian, edo hirugarrenean, hala badagokio, parte hartzeko diru-zuzkidura esleitzeko prozeduran parte hartuko dute.

5. Berrikuntza Zuzendaritzak edo hark eskuordetutako pertsonak, Berritzegune Nagusiko zuzendariak eta Berritzegune Nagusiko programaren arduradunak osatutako batzorde batek hautatuko ditu ikastetxeei deialdi bakoitzerako eskaini beharreko esperientziak, honako irizpide hauen arabera:



- Esperientzia berritzailatzat hartzea.
- Zentroko finkatze-maila eta egiaztatutako esperientzia.
- Ebaluazio positiboa, bai zuzendaritzaren aldetik, bai Berritzeguneko aholkularitzaren aldetik.
- Hezkuntza Sailburuordetzaren jarduera-ildo estrategikoetan kokatzea.

6. «Partekatuz ikasi» esperientziek barnean hartuko dituzte garatzeko beharrezkoak dituzten prestakuntza- edo berrikuntza-jarduera guztiak: bisitaldiak (hiru gutxienez ikastetxe eskatzailera, eta bat ikastetxe tutorera), batzarrak, ikasgelarako sarrera, materialen eskuratzea edo prestakuntza-saioak. Akordio batean, «Partekatuz ikasi» esperientzia gauzatzeko lan-egitasmoa adostu eta sinatuko dute ikastetxe eskatzaileak eta ikastetxe tutoreak, III. eranskineko ereduari jarraikiz. Akordioa gauzatuko da beti deialdiaren ebazpena argitaratzen den ikasturtea amaitu baino lehen. Horrela, ikastetxe biek esku-hartze egutegia adostuko dute parte-hartzaileen egutegien kudeaketa errazteko. Ikastetxe eskatzaileak komeni dela ikusten badu, «Partekatuz ikasi»ren esparruan egiten diren bilera edo saioetara Berritzeguneko aholkulari bat lagun izatea eskatu ahal izango du.

7. Edukiaren arabera, departamentu batek, arlo batek, hezkuntza-etapa batek edo klaustro osoak edo haren zati batek parte hartu ahalko dute «Partekatuz ikasi» esperientzietan. «Partekatuz ikasi» esperientzia garatzeko eta gauzatzeko, ikastetxeak gutxienez 15 ordu aurreikusiko ditu.

9. artikulua. – Ziurtagiriak

Proiektuan parte hartzen duen irakasle bakoitzak proiektua garatu eta gauzatzeko jarritako orduen % 80 gainditzeko badu, eta proiektu horren egikaritze-memoriak balorazio positiboa jasotzen duen bakoitzean, parte-hartzaile bakoitzari ofizioz eta banaka ziurtatuko zaizkio proiektu mota bakoitzerako ezarritako orduak: 45 ordu, proiektu integral bat edo curriculuma aberasteko proiektu bat bada; 30 ordu, hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektu bat bada, eta 15 ordu, «Partekatuz ikasi» esperientzia bat bada. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, irakasle bakoitzak gehienez ere 90 orduen ziurtagiria jaso ahal izango du Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

10. artikulua. – Bikintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egiteko laguntzak

1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak proiektu integrala, curriculuma aberasteko proiektua edo hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektua martxan jartzen direla zaindu behar du; eta ikasketa-burutzak koordinatu behar du garapen guztia, edo, bestela, irakasle bat jarri behar du koordinatzaile moduan. Hori eginez gero, irakasle hori bera arduratuko da aldian behin ikasketa-burutzari proiektuaren garapenari buruzko eta egindako ekintzei buruzko informazioa emateaz, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da horrekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.
2. Ikastetxeak, bere burua antolatze duten autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak proiektuetan egiten duten lanera egokitu ahal izango ditu, nola eskola-orduen kopurua hala horien banaketa; betiere, kasuan kasuko ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.
3. Proiektu integral bat, curriculuma aberasteko proiektu bat edo hezkuntza berriztatze prestakuntza proiektu bat onartuta duten ikastetxe guztiek erreferentziako aholkulari bat izango dute gutxienez Berritzegunean, eta hura arduratuko da, ikastetxean proiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonarekin batera, proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-



lanak egiteaz. Gainera, curriculuma aberasteko proiektu bat onartuta duten ikastetxeetako irakasleek lehentasuna izango dute Berritzegune Nagusiak esparru horretan antolatzen duen prestakuntzan parte hartzeko.

4. Curriculuma aberasteko proiektu bat duten ikastetxeek lehen urtean pertsona bat liberatuta izango dute lanaldi erdian, proiektuaren koordinazio-lanak egiteko. Gainera, Berritzegune Nagusiaren aholkularitza jasoko dute, eta aldian-aldian parte hartuko dute saio bateratuetan, prestakuntzarako, sustapenerako, proiektuaren jarraipenerako eta ebaluaziorako. Saio horietan parte hartuko dute Berritzegune Nagusiko arloko aholkulariek, eskualdeko Berritzeguneko erreferentziako aholkulariak eta ikastetxe bakoitzeko curriculuma aberasteko proiektuaren koordinatzaileak.
5. «Partekatuz ikasi» esperientziaren ikastetxe tutoreak egingo ditu prestakuntza-jardueraren ebaluazio- eta jarraipen-lanak, ikastetxe eskatzaileko koordinatzailearekin batera. Horretaz gainera, koordinatzaile horrek jardueraren garapenaren berri emango dio Berritzeguneko aholkulariari. Bere zeregin guztiak egiteko, ikastetxe tutoreak ordu-liberazioa izango du, esleitutako ikastetxe-kopuruaren arabera.

11. artikulua. – Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak aurkezteko epea Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2020ko martxoaren 30an bukatuko da. Eskabidea elektronikoki aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, behar bezala beteta. Eskabide-eredua euskadi.net webguneko egoitza elektroniko honetan egongo da eskuragarri: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2020>
2. Ikastetxe interesdunek 1. artikuluko proiektu mota baterako edo gehiagorako eskaera egin ahalko dute.
3. Eskabideak osatuta ez badaude, bete gabe utzitakoa betetzeko edo falta diren agiriak aurkezteko eskatuko zaie ikastetxeei, eta hamar egun naturaleko epea emango zaie horretarako. Era berean, ohartaraziko zaie eskaerari atzera egiten diotela ulertuko dela horrelakorik egiten ez badute.
4. Ikastetxeko urteko-plana eta garatu nahi den proiektua aurkeztuko dira eskabidearekin batera, hala badagokio.

12. artikulua. – Organo kudeatzailea

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetako diru-zuzkidura esleitzeko prozedura.

13. artikulua. – Ebaluazio-batzordea

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat sortuko da. Bertan, bi sexueta ordezkariek egongo dira, eta gutxienez % 40ko oreka mantendu beharko da. Honako hauek osatuko dute balorazio-batzordea:

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuko arduradunak, batzordeburu.



- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde-burutzen arduradunek edo haiek izendatutako ordezkariak.
- Berritzegune Nagusiko aholkulari batek, «Partekatuz ikasi» esperientzia bakoitzean erreferente diren ikastetxe edo sareetako ordezkari.
- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, edo eskuordetzen duen pertsonak.
- Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuko teknikari batek, idazkari-lanak egingo dituenak, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak izendatua.

14. artikulua. – Eskabideak aukeratzea.

1. Proiektuak aukeratzeko, I. eranskinean eskaerak baloratzeko finkatzen den baremoa hartuko da kontuan. Esleipen-prozeduratik kanpo geldituko dira gutxienez 12 puntu lortzen ez dituzten berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.

2. Proiektuak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahalko dizkio eskualdeko Berritzeguneari.

3. «Partekatuz ikasi» esperientziei dagokienez, eskualdeko Berritzeguneak txosten bat egingo du, honako hauek bilduko dituenak: ikastetxe bakoitzak esperientziaren edukian egindako bidea, parte hartzen ari den proiektuen zerrenda eta parte-hartzearen egokitasunari buruzko balorazio bat, aurreko gaiak aintzat hartuz.

4. Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari helaraziko dizkio. Onartzeko proposatzen diren berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak eta «Partekatuz ikasi» esperientziak adieraziko ditu proposamenean, baita bakoitzari ematea proposatzen duen zenbatekoa ere. Gainera, baztertutako eskabideen zerrenda sartuko da, haiek baztertzeko arrazoiak aipatuta.

15. artikulua. – Ebazpena.

1. Ebaluazio-batzordearen proposamena aztertutakoan, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko du prozedura, sei hilabete gehienez. Ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei, eta onartutako berrikuntza-proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak, hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak eta «Partekatuz ikasi» esperientziak adieraziko ditu, baita bakoitzari emandako zenbatekoa ere. Era berean, lurralde bakoitzeko bi proiektu ordezkoren zerrenda bat erantsiko da, puntu kopuruaren arabera, ebazpena eman ondoren ikastetxeek parte hartzeari uko egiteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik parte hartzeari utziko baliote ere. Gainera, baztertutako eskabideen zerrenda sartuko da, haiek baztertzeko arrazoiak aipatuta.

2. Ikastetxe interesdunek hamabost egun naturalak izango dute, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatziko ditu erreklamazioak.

3. Baldin eta ebazpena jakinarazitakoan hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuetarako diru-zuzkiduraren onuradunen batek esleitutako zenbatekoari uko egiten badiu, lurralde bereko ordezkoren zerrendako ikastetxeak ordezkatzeko du.



4. Gehienezko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskabidea ukatu zaiela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikulua onorioetarako.

16. artikulua. – Diru-laguntzen bateraezintasuna.

Diru-laguntza hauek bateraezinak dira helburu bererako beste edozein laguntzarekin, iturri publikoetakoak zein pribatuetoakoak izan.

17. artikulua. – Diru-laguntzak ordaintzea.

Diru-zuzkidurak bi agindutan ordainduko dira: lehenik, guztira onartutakoaren %55, 2020 urtea amaitu baino lehen ordainduko da, eta, bigarrenik, gainerakoa, aurkezten diren egiaztagiria aztertu eta proiektuaren memoria ontzat emandakoan.

18. artikulua. – Hautatutako ikastetxeen berariazko betebeharrak.

Honako betebeharrak hauek izango dituzte deialdi honetako zuzkiduren onuradun diren ikastetxeek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Hiru eguneko epean – deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera –, ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Proiektua Ikastetxeko Urteko Planean sartzea.

c) Zertarako ematen den zuzkidura, horretarako erabiltzea; hau da, onartutako berrikuntza-proiektu integrala, curriculumak aberasteko proiektua, hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektua edo «Partekatuz ikasi» esperientzia eta bertako jarduerak egiteko erabiltzea.

d) Eskualdeko Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea proiektuaren edo esperientziaren aholkularitza-, ebaluazio-, jarraipen- eta kudeaketa-lanetan.

e) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia bidaltzea, deialdi honen kontura jasotako dirua dela eta.

f) Proiektua edo «Partekatuz ikasi» esperientzia gauzatu izana justifikatzeko agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztea. Era berean, aplikazio informatikoan bertan horretarako ezarritako jarraipenerako inprimaki guztiak (Excel formatuan) beteko dira.

g) Berrikuntza-proiektu integralak edo curriculumak aberasteko proiektuak egiteko dirua esleitzen zaien ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin eta EHUarekin elkarlanean arituko dira, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integratu daitezkeen laguntzeko, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduatutako praktiketako irakasleak onartuz, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterreko praktiketako irakasleak ere.

h) Berrikuntzarako prestakuntza-proiektu bat egiteko zuzkidura ekonomikoa jaso duten ikastetxeek konpromisoa hartzen dute hurrengo ikasturteko urteko planean deialdi honetan onartutako proiektuaren inplementazioa jasotzeko.



19. artikulua. – Jarduera justifikatzea.

1. Modalitatearen batean, proiektu eta/edo esperientziaren bat onartzen zaien ikastetxeek haren bilakaerari eta ebaluazioari buruzko memoria bat aurkeztuko dute 2021ko ekainaren 15a baino lehen. Justifikazioak baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, ikastetxe publikoentzako atariaren bidez: “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak>). Horretarako, aplikazio horretan ezarritako inprimaki guztiak betetzeko dituzte (IV. eranskina).

2. Memorian honako hauek jaso beharko dira: egindako jardueren zerrenda, jardueren garapena, proposatutako helburuen lorpen-maila, horietako bakoitzak izan duen kostua, onartutako jarduerari egotz dakioketena, eta proiektu osoaren ebaluazioa. Ikastetxeak fakturak, ordainagiriak eta egindako gastuaren beste edozein ziurtagiri gordeko ditu, Administrazioak dokumentazio hori eskatzen badio ere. Horretarako gaitutako aplikazioaren bidez, memoria modu elektronikoa osatuko da, eta plataforma horretan horretarako gaitzen diren formularioetan (IV. eranskina) ezarritako gainerako dokumentazioa eta datu guztiak gehituko dira. Proiektuaren garapenari eta ebaluazioari buruzko txostenean, gainera, honako hauek sartuko dira eragin-adierazle gisa: egindako materialen kopurua eta edukia; zenbat ikasleri eragin dien; egindako prestakuntza-jardueren kopurua eta edukia; parte hartu duten irakasleen kopurua eta ehunekoa, eta ea, prestakuntzaren zati gisa, praktikaren bat ezarri den ikasgelan.

3. Gainera, memoriak barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat; ziurtagiri horrek berariaz zehaztuko du ikastetxeko irakasleek guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.

20. artikulua. – Jarraipena eta ebaluazioa.

1. Ikasturte amaieran, ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion Berritzeguneko batzorde pedagogikoak txosten bat egingo du aukeratutako proiektu integralen, curriculumak aberasteko proiektuen eta hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuen bilakaerari buruz. Txosten horiek irakasleen Hobekuntzarako Zerbitzuari eta Hezkuntza Berriztatze Lurralde Burutzari igorriko zaizkio, eta ikastetxe bakoitzaren eskura egongo dira bertan.

2. Baldin eta ikasturtean zehar gorabehera nabarmenik badago proiektu integral, curriculumak aberasteko proiektu edo hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuen baten bilakaeran, eskualdeko Berritzeguneko zuzendaritzak Lurralde Burutzari eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari jakinaraziko dio, Zuzendaritzak deialdi hau egoki betetzeko neurriak hartu ahal izan ditzan.

3. «Partekatuz ikasi» esperientzietako ikastetxe tutoreek esperientzien bilakaerari buruzko txosten bat egingo dute ikasturte bukaeran, eta ikastetxe bakoitzak izandako parte-hartzea ebaluatuko dute. Txosten hori Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari helaraziko diote, 2021ko ekainaren 15a baino lehen.

4. Ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan, Hezkuntza Ikuskaritzak aukeratutako proiektu integralak, curriculumak aberasteko proiektuak eta hezkuntzaren bikaintasunerantzko prestakuntza-proiektuak — Ikastetxeko Urteko Planean sartuko dira proiektuak — zenbateraino betetzen diren kontrolatuko du eta, betetzen ez badira, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

21. artikulua. – Ez-betetzeak.



1. Baldin eta egiaztatzen bada ikastetxeek ez dituztela betetzen diru-zuzkidura ematea eragin duten baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko diote dirua.

2. Dirua itzuli beharra dago hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak jakitea diruz hornitzen diren proiektuak ez direla gauzatu edo ez direla iritsi diseinatzerakoan aurreikusitako minimora.
- b) Onuradunek ez betetzea deialdi honen 18. artikuluko betebeharrak edo EAEko aurrekontuetako laguntzen onuradunek duten beste edozein.

22. artikulua. – Datuen babesa

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiaza dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 2an.

Hezkuntzako sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA

MIREN MAITE ALONSO ARANA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



ESKAERAK EBALUATZEKO BAREMOA

1. Proiektua ikastetxeko urteko-planaren ezaugarrietara egokitzea:	11 puntu, gehienez
1.1. Proiektuaren eta hautemandako beharrianen arteko lotura urteko planekin	2 puntu, gehienez
1.2. Diziplinarteko planteamendua garatzea	2 puntu, gehienez
1.3. Proposatutako jardueren ekarpenak, egin beharreko aldaketa metodologikoetarako	2 puntu, gehienez
1.4. Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak urteko-planaren eremu hauekin duten lotura: curriculum eta metodologia; antolamendua eta funtzionamendua; komunitatea (ikastetxearen norabidea, bizikidetza...) eta garapen profesionala edo prestakuntza	2 puntu, gehienez
1.5. Proiektuak eta irakurketa-plana martxan jartzeko eta garatzeko hartutako neurriek duten lotura.	3 puntu gehienez
2. Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea:	7 puntu, gehienez
2.1. Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuen argitasuna eta zehaztasuna	2 puntu, gehienez
2.2. Zer lotura duen diziplinarteko planteamenduen bidez oinarritzko gaitasunak garatzearekin	2 puntu, gehienez
2.3. Elementu globalizatzaileak sartzea, kontuan hartzen dutenak irakasleen, ikasleen eta eskola-komunitateko beste kide batzuen inplikazioa	Puntu 1, gehienez
2.4 Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak zehaztea eta zuzenean aplikatzea ikastetxearen funtzionamenduan	Puntu 1, gehienez
2.5. Epe erdirako ibilbide estrategiko bat zehaztea	Puntu 1, gehienez
3. Proiektuaren bideragarritasuna, aplikagarritasuna eta kudeaketa:	11 puntu, gehienez
3.1. Proiektuan proposatutako jarduerak garatzeko aurreikusitako antolamendua	2 puntu, gehienez
3.2. Proiektuaren epeak eta faseak zehaztea: inplikaturako irakasleen arteko lankidetzak-uneak, eta ikastetxearen ohiko dinamikarekin duen erlazioa	2 puntu, gehienez
3.3. Koordinazio-egiturak ezartzea eta ardurak banatzea	2 puntu, gehienez
3.4. Proposatutako jardueren prestakuntza- eta berrikuntza-alderdiak argiki bereiztea	Puntu 1, gehienez
3.5 Zientzietako eta matematikako material didaktikoa (digitala edo ez-digitala) sortzea	3 puntu gehienez
3.6. Proiektua garatzeko eskualdeko Berritzegunearen prestakuntza-eskaintza eta erakundeen beste prestakuntza-eskaintza batzuk erabiltzea	Puntu 1, gehienez
4. Emaitzak ebaluatzeke plana:	4 puntu, gehienez
4.1. Ebaluatzeke irizpideak definitzea, eta prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuak betetzen diren edo ez agerian jartzen duten adierazleak definitzea	2 puntu, gehienez
4.2. Ebaluatzeke tresnak eta uneak zehaztea	2 puntu, gehienez
5. Aurrekontua justifikatzea:	2 puntu, gehienez
5.1. Eskatutako aurrekontua koherentea izatea lan-egitasmoarekin eta ikastetxeko baliabideekin	Puntu 1, gehienez
5.2. 5.2. Eskatutako dirua nola banatuko den azaltzea	Puntu 1, gehienez
6. Aukera- eta eskubide-berdintasuna	5 puntu, gehienez
6.1. Ikastetxeak "Hamaika Esku" egitasmoan parte hartzea	5 puntu
6.2. Ikasleen % 60 baino gehiago bekadunak izatea	2 puntu
6.3. Ikasleen % 45 eta % 60 artean bekadunak izatea	Puntu 1
6.4. Ikasleen % 30 eta % 45 artean bekadunak izatea	0,5 puntu
Puntuak, guztira:	40 puntu



II ERANSKINA

"Partekatuz ikasi" ESPERIENTZIAK

Esperientzien aurkibidea:

Esperientzia	Izenburua	Eskola tutorea	Herria
Esperientzia.1	Parte-hartzerako eta antolatzekeko estrategiak hezkidetzak modu eraginkorrean lantzeko.	IES Koldo Mitxelena BHI	Vitoria-Gasteiz
Esperientzia.2	Berdintasun ibilgailua: STEAM etorkizun bat denontzat	IES Bizarain BHI	Errearteria
Esperientzia.3	Generotik haratago	CEIP Otxandio HLHI	Otxandio
Esperientzia.4	Ikasleok parte-hartze hartzen dugu elkarbizitzaren kudeaketan	CEIP Bizarain HLHI	Errearteria
		IES Hirubide BHI	Irun
Esperientzia.5	Elkarbizitza proiektua denon artean eraikitzen: Elkarbizitza behatokia eta "probentziorako" ekintzak.	CEIP Cervantes HLHI	Bilbo
Esperientzia.6	ZEREGIN IKASKUNTZA GELE tako metodologia berrietarako tutoretza.	CIFP Mendizabala LHII	Vitoria-Gasteiz
Esperientzia.7	Partekatuz ikasten dugu eta elkarrekin aberasten gara: elkarrekin aberasteko bide bat	CEIP San Bartolomé HLHI	Leioa
Esperientzia.8	Jaizkibelgo Talaian familia eta ikasleak ezti bila	CEIP Lezo HLHI	Lezo
Esperientzia.9	Ikasleen Euskara Batzordea: barne-dinamika eta antolatzen dituen jarduerak	CEIP Eguzkitza LHI	Irun
Esperientzia.10	BIZIPOZA: lagunekin euskaraz hitz egin nahi dugu!	CEIP Elatzeta HLHI	Irun
Esperientzia.11	Ikasleen irakurmena ahalbideratzeko estrategiak eta jarduerak. Irakurketa Planaren Garapena	CEIP Landako HLHI	Durango
Esperientzia.12	Irakurleak sortzen : liburutegia irakurketa planaren motorra	IES Aixerrota BHI	Getxo
Esperientzia.13	Bastidako Eskolan zubiak eraikiz	CEIP Labastida HLHI	Labastida
Esperientzia.14	Bidelaguna edo Bideratzaile? Haurren prozesuak laguntzeko begirada eta eskku-hartze bateratua ereiten	CEIP Aldaialde HLHI	Vitoria-Gasteiz
Esperientzia.15	Begiradatik praktikara: gure eredua eraikiz	CPI Ikasbidea IPI	Arratzua-Ubarrundia
Esperientzia.16	Espazioak zabalduz: gelatik mugimendu autonomora.	CEIP Mimetiz HLHI	Zalla
Esperientzia.17	Mugimendu Autonomia eta Ekosistemen antolaketa Haur Hezkuntzan	CEIP Félix Samaniego HLHI	Tolosa
Esperientzia.18	Zientzia-hezitzailea jolas librearen dinamikan.	CPEIP Umandi HLHI	Vitoria-Gasteiz
Esperientzia.19	Haurren ongizatea bermatzeko gakoak bila Haur Hezkuntzan	CEIP Zaldupe HLHI	Ondarroa
Esperientzia.20	Zientzia ekosistema mugimendu autonomoan	CEIP Zumaia HLHI	Zumaia
Esperientzia.21	SORMENA mugarik gabe: Eskolatik Bizitzara.	CEIP Amoroto HLHI	Amoroto
Esperientzia.22	Ikasgela, ezagutza sortzen eta partekatzen duen komunitatea	CEIP Antzuola HLHI	Antzuola



Esperientzia	Izenburua	Escola tutorea	Herria
Esperientzia.23	Ikastolako hezkuntza eskaintza aldatu eta konpetentzietan hazi, ikaslea hezi (konpetentzietan oinarritutako espazio, baliabide, aprendizaia eta esku-hartze estiloa).	CEIP Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai HLHI	Azpeitia
Esperientzia.24	Hazi, eskola biziz	CEIP Basakaitz HLHI	Aizarnazabal
Esperientzia.25	STEAM, robotika, irakurketa plana eta elkarbizitza plan garatu Hezkuntza jarduera Arrakastatsuen bidez	CPI Sansomendi IPI	Vitoria-Gasteiz
		CEIP Maiztegi HLHI	Iurreta
		CEIP Pedro Maria Otaño HLHI	Zizurkil
Esperientzia.26	Konpetentziak garatuz proiektu bidezko ikaskuntzaren bidez	CEIP Lantziego Ikastola HLHI	Lantziego
Esperientzia.27	Talentuz: sormena eta jakintza txikitatik.	CEIP Lekeitio HLHI	Lekeitio
Esperientzia.28	Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan IKT proiektua garatu Software Librea oinarri hartuta	IES Antigua-Luberri BHI	Donostia-San Sebastián
Esperientzia.29	Scratch ikasketa prozesuan.	CEIP Etxaurren Ikastola HLHI	Ayala-Aiara
Esperientzia.30	"Flipped classroom", ikasteko beste era bat: ikaslea protagonista	IES Lekeitio BHI	Lekeitio
Esperientzia.31	STEAM: zientzia eta artea eskutik helduta	CEIP Orokieta HLHI	Zarautz
Esperientzia.32	Eragiketa aritmetikoentzako beste algoritmo batzuk 1. zikloan	CEIP Plaentxi HLHI	Soraluce-Placencia de las Armas
Esperientzia.33	Haur eta Lehen hezkuntzako eskoletan IKT proiektua garatu Software Librea oinarri hartuta.	CEIP Talaia HLHI	Hondarribia
Esperientzia.34	Jolasen bitartez matematika manipulatioak lantzen	CEIP Zelaieta HLHI	Abadiño
Esperientzia.35	Ikastetxeen Kudeaketa Aurreratua; Zuzendaritza taldeen aukera, hezkuntza hobetearren	CEIP Murumendi HLHI	Beasain
		IES Elorrio BHI	Elorrio
		IES Lizardi BHI	Zarautz
Esperientzia.36	Hezkuntza-Lidergoa eta ikastetxeen hobekuntzan duen eragina.	EEI Okondo HHE	Okondo
		CEIP Amara-Berri HLHI	Donostia-San Sebastián
Esperientzia.37	Parte-hartzerako eta antolatzekeo estrategiak hezkidetzan modu eraginkorrean lantzeko.	CEIP Dunboa HLHI	Irun



1. ESPERIENTZIA

Izenburua	Parte-hartzerako eta antolatzeko estrategiak hezkidetza modu eraginkorrean lantzeko.
Edukia	Zertan datza: Hezkidetza-planak kale egiteko arriskua du, baldin eta ikastetxean ez badira egiturazko neurriak hartzen ikasleek eta irakasleek parte hartu dezaten planaren garapenean. Horretarako beharrezkoa da, batetik, zuzendaritzak erraztea antolaketa partizipatibo bat eta, bestetik, hezkidetzak lehentasunezko gai bilakatzea arlo guztietan. Berdintasun batzordeak (batzordeek) plana garatzeko tresna behar du izan. Ikasleek modu zuzenean parte hartu behar dute bertan, eta irakasleak eta ikasleak elkartzeko eta eztabaidatzeko lekua izango da. Hori gerta dadin, ezinbestekoa da batzordea aldi-aldi biltzea giro atseginean. Batzordeak antolatuko ditu eskola-komunitate osoa sentsibilizatzeko jarduerak: sentsibilizazio-kanpainak, ikasgaietan lantzeko jarduerak edo lantegiak, hitzaldiak, aste feminista, mintzakafea... Espierientziaren garapena: 1.Momentua: Esperientzia zertan datzan jakitea, eta eskola-hartzailearen eta tutorearen arteko lan-plana adostea. 2. momentua: Eskola-hartzailean praktika martxan jartzeko aukera diseinatzea. 3.momentua: Prozesuaren eta praktikaren hausnarketa. Etorkizunean esperientzia eskola-hartzailearen ezartzeari buruzko erabakia hartzea
Ikastetxe tutorea(k)	IES Koldo Mitxelena BHI (Vitoria-Gasteiz)
Gainontzeko informazioa	https://sites.google.com/a/koldomitxelena.net/kmweb/home



2. ESPERIENTZIA

Izenburua	Berdintasun ibilgailua: STEAM etorkizun bat denontzat
Edukia	Zertan datza: STEAM adarreko (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritzak, Arteak eta Matematikak) ikasketak gure ikasleko neska gutxiak aukeratzen ditzutela konturatu ginen, horregatik proiektuko lehen ekimena (PE1: Generoaren inguruan azterketa estatistikoa) lanari buruzko ideiak, estereotipoak, emakumeak gaur egun duen irudia eta miretsi beharreko emakumeen itxura lantzen ari gara. Abiapuntua zer ikasteko asmoa duten galdetzea izan da. Ondoren, ikastetxeko hiru urteko datuak aztertu dira eta EAEko hezkuntza sistemarako II Hezkidetza-Planean agertzen diren datuekin konparatu dituzte. Azterketa estatistikoak emandako datu eta grafikoen inguruan analisi kritikoa egitea eskatu zaie. Taldeko IK/KI "iritzi kontrajarriak" taldeko lan-teknika erabili ohi dugu bi ikuspuntu kontrajarri edo gehiago elkartzeko diren gizarte errealitate gatazkatsu honen aztertzeko. Teknika honek eztabaidarako eta jendearen aurrean arrazoibideak emateko oinarritzko trebeziak edo estrategiak irakasten dizkigu, ulermena eta tolerantzia bultzatuta, baita aurreiritziak gainditzea ere. Beste ekimen guztiak lantzean, taldeak diseinatzean, genero ikuspuntua oso presente egon da, nesken artean zientzia eta teknologiarako bokazioak pizteko asmoz. Izan ere, neskek jakin behar dute zientzialari edo teknologo izatea eskura duten aukera ere dela, eta horretarako zientzia eta teknologiako karrerari buruz sentsibilizatu nahiz orientatu behar ditugu, gaur egun dauden estereotipoak jakinaraziz eta landuz, ez dezaten ikasketen hautapena baldintzatu. Ibilgailu gidatua sortzen ikasiz, oinarritzko zehar konpetentziak nahiz eduki espezifikoak garatu dituzte matematika, fisika-kimika, plastika, teknologia, ingelesa eta euskara arloetatik. Espereintziaren garapena: - Gure ibilbide eta esperientzia partekatzea: - plangintza, koordinazioa, materialak eta ebaluazioa. - Ekintza eta materialen aholkularitza eta jarraipena.
Ikastetxe tutorea(k)	IES Bizarain BHI (Errenteria)
Gainontzeko informazioa	https://steamgune.euskadi.eus/eu/inicio http://www.bizarainbhi.hezkuntza.net/



3. ESPERIENTZIA

Izenburua	Generotik haratago
Edukia	Zertan datza: Zer da neska izatea? Zer suposatzen du mutila izatea? Gure ikasleak genero identidaderen arabera sailkatzen ditugu? Sailkapen modelo honekin bat ez datoztenekin nola jokatu dugu? Esperientzia garapena: Genero identidate heteronormatiboarekin bat ez zetorren familia baten etorrerak gure eskolako sexu-genero ikuspegia kolokan jarri zuen. Ondorioz, hausnarketa eta formazio prozesu bat ipini genuen martxan. Laster ohartu ginen heteronormatibotasun horrek izugarrizko eragina zuela ikasle GUZTIENGAN. Beraien burua mutiltzat /neskatzat jotzen zutenak, berau adierazteko “modu bakarra” zutela, bai gizartean eta bai eskolan. Genero sistema binario horrek identidadearen adierazpenari kalte baino ez dio egiten. Aukeraketa bat egitera derrigortzen ditu ikasleak eta aukeraketa horretan “lote” guztia erosi behar dute. Baina posible da erronka honi aurre egitea! Hauek dira eskaintzen ditugun klabe batzuk: • Eragile bakoitzaren parte hartzea sustatu (Ikasleak, irakasleak, familiak, Udalak) • Sexuan oinarritutako banaketa kuestionatu • “Ohikoa”, “Normala”, bezalako terminoen inguruan hausnartu. • Aldaketa arkitektoniko-estruturalak nola bideratu (komunak, aldagelak...) • Aldaketa curricularrak planifikatu • Aldaketa metodologikoak sustatu. • Genero identidate ez normatiboa duen ikaslerik bagenu (ziur badugula), zer da kontuan hartu behar duguna.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Otxandio HLHI (Otxandio)
Gainontzeko informazioa	www.otxandiokoeskola.com



4. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasleok parte-hartze hartzen dugu elkarbizitzaren kudeaketan
Edukia	Zertan datza: Funtsean positiboa den bizikidetza-kontzeptu batetik abiatzen gara, eskola-testuinguruan ikasi eta garatu behar dena. Horregatik, bizikidetza arlo pertsonaletik zein kolektibotik lantzeak ahalbidetuko du, besteak beste, eskola osoaren funtzionamendua hobetzea eta erakunde bizia bihurtzea ... (Uruñuela, 2016). Ilido beretik, Bizikasi ekimenetik hainbat proposamen nabarmentzen dira (antolaketa-neurriak, aukera metodologikoak, curriculum-garapenak, estrategiak ...), ikastetxeak prebentzioaren bidea probentziotik har dezan. Gure ikastetxeetan, uste dugu ikasleek modu egituratuan, prestakuntza espezifikoaren bidez eta irakasleen lidergoarekin parte hartzea ahalbidetzen duen prebentzio-egitura bat Elkarbizitza zirkuluak direla. Esperientziaren garapena: Gure praktikaren tutorizazioarekin, honako alderdi hauek landuko ditugu: • Zer dira bizikidetza-zirkuluak eta nola gauzatzen ditugu gure ikastetxean? • Ikasleentzako prestakuntza: nola gauzatzen dugun, edukia, kasuen analisia ... • Ikasleen parte-hartzea Bizikidetzaren Behatokian: kudeaketa, alderdi positiboak ... • Bizikidetza-zirkuluak eta familiak: komunitatearekiko partaidetza-prozesuak
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Bizarain HLHI (Errenteria) IES Hirubide BHI (Irun)
Gainontzeko informazioa	https://bizarain.eus/ikastola http://www.hirubide.eus/



5. ESPERIENTZIA

Izenburua	Elkarbizitza proiektua denon artean eraikitzen: Elkarbizitza behatokia eta "probentziorako" ekintzak.
Edukia	Zertan datza: Bizikidetza irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen eta etorkizuneko ikasleriaren euskarri giltzarrietako bat dela kontuan hartuta; ELKARBIZITZA BEHATOKIAK prebentzio-jarduerak eta bizikidetza hobetzeko neurriak proposatzea ikastetxeetan bizikidetza hobetzeko, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea du helburu. Esperientzia garapena: 1-Elkarbizitza Behatokiaren helburuak ezagutzea 2-Elkarbizitza Behatokiaren ordezkari-eredua aurkeztea 3-Elkarbizitza Behatokiaren batzarrak ezagutzea: 1. Batzarra: Diagnosia eta Urteko Hobekuntza Plana 2. Batzarra: Urteko Hobekuntza Planaren jarraipena 3. Batzarra: Ebaluazioa 4-Elkarbizitza Behatokian parte-hartzea ikusle bezala 5-"Probentziorako" inplementatutako ekintza-ereduak aurkeztea: "Arau protokolo bateratua" - Haur hezkuntzako arau protokolo bateratua (jantokia, gela, pasiloak, patioa...) - Lehen Hezkuntzako arau protokoloa bateratua (jantokia, gela, pasiloak, patioa...) "Bitartekaritza" Bitartekaritza prozesua. Bitartekarien formakuntza, irakaslearen rola... "Patio Hezitzaile" Eskola eremu ziurra eta abegikorra bihurtzeko jolastokiaren hausnarketa eta esku-hartzea (tresnak eta baliabideak) "Patio Educativo" Transformación del patio en un espacio seguro: reflexión e intervención (herramientas y recursos) "BIZIKASI": Eskolako barne protokoloa 6-Erabilitako tresnak eta baliabideak aurkeztea
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Cervantes HLHI (Bilbo)
Gainontzeko informazioa	https://cervanteseskola.eus/



6. ESPERIENTZIA

Izenburua	Zeregin ikaskuntza geletako metodologia berrietarako tutoretza.
Edukia	Zertan datza: Proiektu berritzaile honen ekimenari esker, ZIG etara bideraturiko jarduera egokiak eta hezkuntza egiteak ezagutzera eman nahi dira. Metodologia berritzaileak dituen proiektu honek, ZIG etan dauden premia berezidun ikasleen hezkuntza, gizarte eta lan munduan barneratzea dute xede. Ikasle bakoitzari egokituriko curriculum zehatza prestatuko litzatekeelarik helburua gauzatzeko. Helburuak: • Eskaria egin duten ikastetxeetako ZIG-en berariazko behar izanak identifikatu. • Ikasleak eta beraien gaitasunak ikusgai bihurtu eta azaleratzeko proiektuak praktikan jarri. • Hezkuntza, gizarte eta lan munduan barneratze osoa lortzeko jardutea hobetzeko, eredu eta estrategia zehatzak eskaini. • Egitasmo curricularrak diseinatu eta hobetzeko aholkularitza pertsonalizatua eman. • Hezkuntza Bereziko esperientzia curricular berritzaileak partekatu. Esperientziaren Garapena: • Ikastetxe eskatzaileetara bisita, bertako ezaugarriak eta ikasle/irakasleen profila ezagutzeko. • Ikastetxe tutore eta ikastetxe eskatzailearen elkarrekintza egitasmoaren diagnosi eta proposamena • ZIG aren funtzionamendua bistaratzeko ikastetxe tutorera bisita. • Egitasmoaren jarraipena eta ebaluazioa, ikastetxe eskatzaileetara bisita arrunten bidez.
Ikastetxe tutorea(k)	CIFP Mendizabala LHII (Vitoria-Gasteiz)
Gainontzeko informazioa	http://www.mendizabala.hezkuntza.net



7. ESPERIENTZIA

Izenburua	Partekatuz ikasten dugu eta elkarrekin aberasten gara: elkarrekin aberasteko bide bat
Edukia	Zertan datza: Gure ikastetxean curriculuma aberasteko plan bat dugu, Kutxa magikoen – PENTSATEKA-ERLEA-ROBOTIKA ikasgela guztietan, 2 urtetik Lehen Hezkuntzako 6. mailara arte. Haur Hezkuntzakoek egunero hartzen dute parte, eta Lehen Hezkuntzakoek astero izaten dituzte saioak. Además, ponemos en marcha: • Aberaste digitala, aldi berean, materiala dute orokorrean maila bakoitzerako. Alorrak (matea eta hizkuntza, batez ere) beste ildo batean jorratzen dira. • ESPOSIZIOAK-IKERKETA-PROYEKTUAK: interes-arlo bat ikertzea, gizarte-trebetasunak azaltzea eta garatzea. • Familien bankua: dinamika ikastetxean eta proiektuetan parte hartzen dute, gure ikasleen motibazioa handituz. • Erantzun desberdinak ikasleen profilaren arabera. Denek ez dute gauza bera behar. Curriculum Horizontala eta bertikala aberastea, HBE Zabaltzea, Azelerazioa. • Banakako tutoretzak. Lagun egitea, curriculumean ez ezik, gizartean eta emozioetan ere. Esperientziaren garapena: Mediante esta experiencia los centros tutorizados podrán: • Gure eskolako baliabide pertsonalen kudeaketa partekatzea • Gure ikasgeletako bizitza ezagutzea, haur-hezkuntzatik lehen hezkuntzara. • Kutxa Magikoak eta "Magic Box" -ak zer diren jakitea: ○ edukia, lantzen ditugun ezagutza-arloak (arrazoiketa, logika, kalkulu matematikoa, sormena, orientazio espaziala ...), funtzionamendua (txokoak, erregistro-orriak ...) • Detekziorako eta jarraipenerako materiala partekatzea • Zalantzak, gogoetak eta ikaskuntzak partekatzea
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP San Bartolomé HLHI (Leioa)
Gainontzeko informazioa	014335aa hezkuntza.net



8. ESPERIENTZIA

Izenburua	Jaizkibelgo Talaian familia eta ikasleak ezti bila
Edukia	Zertan datza: Gure ikastetxea erlauntza bat da. Eta erlauntza bezala ulertzen dugu, ezta lortuko badugu, ezinbestekoa iruditzen zaigulako egurrezko xafla horien atzean ezkututzen diren familia, ikasle eta irakasleak, helburu bera lortze bidean, elkarrekin era koordinatuan lanean jardutea, erlauntza baten barruan, erleek jarduten duten gisan. Euskara sustatu nahi badugu, beraz, ezinbestekoa eskola komunitate osoari hitza ematea. Horretarako, Ikasle batzordea eta Gurasoen batzordea sortu ditugu. Ikasleen batzordeak ikasleria xaxatzea du xede. LH 4, 5 eta 6. mailetan gela bakoitzeko 2 ordezkari, (guztira 18 lagun) hilean behin zuzendaria eta normalizazio arduradunarekin elkartzen dira euskararen inguruko kezka, ekintzak eta estrategiak plazaratzeko. Proposamenak egingarriak diren neurrian, ordezkariak aldiro, eginkizun zehatz bat geletara eramaten dute. Guraso batzordea halaber, gogotsu ari zaigu lanean. Koordinazio estua. Ikasleak jolas kooperatibo bat asmatzen ari diren unean esaterako, gurasoek mahai-jolasen bilgunea antolatu dute. Espesientzia garapena: 1- Bi batzorde hauetan egiten den lanari buruzko argibideak: osaera, ezaugarriak, maiztasuna, funtzionamendua ... 2- Egiten den lana zerrendatu eta ezagutarazi. Interesaturik den ikastetxeak horietatik lehentasuna non duen finkatu hurrengo aldi batean sakonago garatzeko. 3- Esperientzi jakin horren inguruan eskura daukagun edo sortu dugun materiala erakutsi, konpartitu edo trukatu. Ad: euskarazko esamoldeak lantzeko asmatu dugun jolas kooperatiboa.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Lezo HLHI (Lezo)
Gainontzeko informazioa	https://www.lezoherrieskola.eus/ https://www.youtube.com/watch?v=kv4Gj8slq2I https://www.youtube.com/watch?v=4LbcBWhyetI



9. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasleen Euskara Batzordea: barne-dinamika eta antolatzen dituen jarduerak
Edukia	Zertan datza: Badira 5 ikasturte Ikasleen Euskara Batzordea martxan jarri genuela, euskararen erabilera bultzatze aldera beraien protagonismoa sustatu nahian. LH 4, 5 eta 6. mailako ikasleak elkartzen dira, gela bakoitzetik bina ikasle. Bospasei astez behin elkartu egiten dira ikastetxearen HN arduradunarekin euskararen erabileraren inguruan hitz egin eta zenbait ekimen antolatzeko, gelakideei eta eskolakideei begira. Esperientzia garapena: • Batzordea nola antolatzen dugun eta zein ibilbide egin duen partekatu. • Azken urteotan egin diren jarduera nagusiak partekatu: Eusle esperientzia, euskararen aldeko lelo lehiaketak, jolas garaiko jardueren antolaketa, megafonia saioak sarrera orduan, TB saioa euskararen egunean... • Kudeaketa nola egiten dugun: Zein jarduera egin eta nola antolatu bileran erabakitzen dute ikasleek, HN arduradunaren gidaritzarekin. • Taldearen barnean suertatu diren dinamika aberatsak eta gogoeta interesgarriak partekatu, baita ikasle batzordekideengan izan ohi duen eragina ere.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Eguzkitza LHI (Irun)
Gainontzeko informazioa	http://www.eguzkitza.hezkuntza.net/eu



10. ESPERIENTZIA

Izenburua	BIZIPOZA: lagunekin euskaraz hitz egin nahi dugu!
Edukia	Zertan datza: Bizipoza ekimenaren bidez hau lortu nahi dugu: • Ikasleen artean euskararen erabilera areagotzea • Ikasleen interesetatik abiatutako ekintzak antolatzea • Euskaraz hitz egitera behartu beharrean beraiek hitz egin nahi izatea. Jolas garaiak erabiltzen dira ikasleek proposatutako ekintzak burutzeko, egitarau luze-zabala eskaintzen da jolas orduetan. Urritik maiatzera gauzatzen da. Bizipoza taldea arduratzen da jarduera horiek antolatzeaz. Ikasleek parte hartze aktiboa dute jardueren antolaketan eta garapenean Espereientzia garapena: Tutorizatutako ikastetxeekin honako hauek partekatuko ditugu: • Ikasleek duten protagonismoa jolas garaian zein jarduera-antolatu eskainiko diren zehazteko garaian. Nola galdetzen diegun ikasleei) zer egin nahi duten (LH1-LH6) eta zer eskaini nahi duten ((LH4-LH6). • Bizipoza taldeak nola aukeratzen dituen gauzatuko diren jarduerak: baldintzak... • Nork osatzen duen Bizipoza taldea • Nola antolatzen diren jarduerak • Nola aurkezten diegu ikasle guztiei jolas orduan egingo diren jarduerak • Nola antolatzen ditugun ordutegiak eta jolas taldeak eta nola egiten da zabalkundea eskolan • Noiz eta nola egiten dugun ekimenaren eta jardueren balorazioa (ikasle irakasleek eta parte hartzaileek parte hartzen dute • Ikasle irakasleei ikasturte amaieran egiten zaien aitortza eta esker ona
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Elatzeta HLHI (Irun)
Gainontzeko informazioa	http://www.elatzeta.hezkuntza.net/eu



11. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasleen irakurmena ahalbideratzeko estrategiak eta jarduerak. Irakurketa planaren garapena.
Edukia	Zertan datza: Ulermenaren trataera disziplinarreko izaera eta curriculumaren "Ikasten eta pentsatzen ikasteko zeharkako konpetentzia" garatzeko helburua du. Ikasleen ulermena eta pentsamendua garatzeko, ikasgeletan ikaste-irakaste testuinguru ezberdinetan martxan jartzeko proposamen praktikoak. Hizkuntzak pentsamendua egituratzen duenez, ikasleek irakurle gai izan daitezen, irakurketan eragina duten azpi prozesu kognitiboetarako hainbat tresna eskaini beharko diegu beharrezkoak diren abileziak gara ditzaten. Esperientzia garapena: • Irakur-prozesuetan ulermena ahalbidetzen dituzten azpi prozesuak. • Hobekuntza ildoak : ○ Prozesu kognitiboetan. ○ Irakurketaren faseetan. ○ Ikasleen adimen anitzen inguruan. ○ Pentsamendu kultura garapenean. ○ Metakognizio prozesuetan. • Ikastetxearen errealitatea aztertu ondoren, irakurketa prozesuak aberasteko proposamen praktikoak eta jarduera zehatzak: ○ Prozesu kognitiboen ingurukoak ○ Aurre ezagutzak aktibatze edota konektatzeko ikus-entzunezko baliabideak. ○ Pentsamendu motak ○ Irakur-prozesuetan hausnartzen laguntzeko pentsamendu errutinen txertaketa. ○ Irakurketa prozesuetan ideiak egituratzeko pentsamendu abilezien aplikazioa ○ Adimen anitzei egokitzen zaizkien ulermen jarduerak eta adierazpen mota ezberdinak ○ Mediatekaren antolaketa
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Landako HLHI (Durango)
Gainontzeko informazioa	http://www.landakolhi.hezkuntza.net 014242aa@hezkuntza.net www.amaraberrisarea.hezkuntza.net absarea@gmail.com



12. ESPERIENTZIA

Izenburua	Irakurleak sortzen : liburutegia irakurketa planaren motorra
Edukia	Zertan datza: Gure ikasleak irakurle trebeak izatea guztion helburua da, horretarako, irakurmena eta idazmena gure geletan lantzen ditugu. Baina hau ez da zertan ikasgelan soilik gertatu behar, eskola liburutegiak jarduera hauek gidatzen eta garatzen dituen motorra izan daitezke; beti ere, irakurzaletasuna sustatzeko funtzioa ahaztu barik. Horixe da azken bi ikasturteetan lantzen ari garena eta hori da zuekin partekatzeko daukaguna. Urte bi hauetan gure liburutegia museo-moduko, erabilera gutxiko toki bat izatetik, era guztietako kultur jarduerak gertatzen diren espazio irekia eta bizia izatera pasatu da. Esperientziaren garapena Hauek dira prozesu honetan jarraitu ditugun urratsak: - Irakurketa planaren diseinua. - Ikastetxe tutorizatuaren egoera eta baliabideak identifikatzea: tokia, giza baliabideak, funtsa...jardueraz betea eta bizia dagoen toki bat eratzeko; barrerak kanpora, altzari koloretsuak, gune bereziak, erakusmahaiak, ordenagailuak dana ikusgai eta eskura. - Nola antolatu eskola liburutegia gure irakurketa planaren helburuen arabera. - Irakurmen eta idazmen jarduerak, irakurleak sortzera zuzendutakoak tutore, irakasleak eta sail didaktikoekin koordinazioan. Hau da orain arte egin duguna - Jarduera hauek zabaltzeko kanalak - Liburutegia eskola kulturgune bihurtzea. - Beste erakunde batzuekin harremanetatik sortzen diren aukerak aprobetxatzea: udaletxeak, beste liburutegi batzuk, inguruko kultur elkarteak, hezkuntza eta kultura sailak...
Ikastetxe tutorea(k)	IES Aixerrota BHI (Getxo)
Gainontzeko informazioa	Ziurtatu gune hau bisitatzen duzula lan hau zehatz-mehatz ikusteko 



13. ESPERIENZIA

Izenburua	Bastidako Eskolan zubiak eraikiz
Edukia	Zertan datza: Bastidako eskolan etengabeko prozesu baten murgildurik gaude, prozesu horren bidez, askotan neurri bakarrekoa izaten den sistema batetik, pertsona bakoitzera egokitzen den sistema batera igaro nahi dugu. Guztiok barneratu ditugu funtsezko bi ideia, ikastetxean egiten den edozein jarduera inplementatzeko iragazki gisa balio dutenak: - Pertsona orok besteena ez bezalako erritmoan ikasten du. - Eskola (sistema) haur bakoitzari egokitu behar zaio, eta ez alderantziz. Hori guztia irakasleen ikuspegi-aldaketa argi batekin, itxaropen handienekin eta haur bakoitzaren hurbileko garapen-eremua kontuan hartuta. Ideia honekin: inor ezin dela "atzean geratu", "Gehien ahal dutenei hegan egiten utzi" behar diegula eta ikastetxean ematen diren prozesu guztiak pertsona bakoitzera egokitu behar direla, ikaskuntzen pertsonalizazioa bilatuz. Esperientziaren garapena: Formazio modalitate honetan, eskoletan ziurtatu behar dugun funtsezko prozesuetako batean jarriko dugu arreta: irakurketa-idazketa prozesuan. - Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1.zikoaren arteko zubia: ibilbide koherentea eta pertsonalizatuak - Planteamendu kontzeptuala, antolaketakoa eta ebaluaziokoa (haur bakoitzaren prozesua eta unea) - Gure proiektua eta haren dinamika eraldatzaileak: adinen nahasketa, ebaluazioaren garapen sakona, komunitate- eta partaidetza-proiektuak, hainbat irakasle ikasgelan, etab.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Labastida HLHI (Labastida)
Gainontzeko informazioa	www.bastidaeskola.com www.eskolatxikiak.eus



14. ESPERIENTZIA

Izenburua	BIDELAGUNA EDO BIDERATZAILE? Haurren prozesuak laguntzeko begirada eta esku-hartze bateratua ereintzen
Edukia	Zertan datza: Aldaialde Herri Eskolan, garapen maila bakoitzaren “bizi-pultsazioa” errespetatzen ahalegintzen gara. Horretarako, espazioak, metodologia zein giza begirada asko zaintzen dugu, ume bakoitzaren berezitasunak mantenduz, gizarteratze prozesu mailakatua bultzatuz. Helduok bigarren maila batean kokatzen gara, protagonista diren ikasleek euren ekintza aurrera eraman dezaten, beti ere, espazio zein denbora giro erlaxatua, lasaia eta zurrin eskainiz. Hau horrela, elkar-harreman honetan helduok “presente” y “disponibles” aurkeztea ezinbestekoa ikusten dugu. Guzti hau aurrera eramateko, bidelagun taldea osatzen dugunok, etengabeko hausnarketa prozesuan murgilduta gaude, Eskuhartze estilo bateratua borobiltzeko. Baina, guzti hau nola lortzen da? Zeintzuk izan ahal dira Hezitzaile Taldearen Esku-hartze Estilo Bateratua zehazteko irizpide nagusiak? Esperientzia garapena: Esperientzia honen bitartez, 237/2015 Dekretuak izendatzen duen Hezitzaile Taldearen Esku-hartze Estilo Bateratua jorratzeko gure eskolan aurrera eramandako hainbat hausnarketa eta ekimen partekatu nahi ditugu, beti ere, eskola bakoitzaren testuingurua kontutan izanik, euren beharretara moldatuz. Bidelaguna izateko, Bidelagundua izan behar zara aurretik, horregatik, gure eskolan burututako ekimenak, hartutako eskarmentuak, erabilitako baliabideak... elkar-banatzean oinarritzen da gure esperientzia, halako faseak jarraituz; 1. Gure esperientziaren azalpena. 2. “Bidelaguntza prozesua”; Tutorizatutako ikastetxearen testuinguru eta beharren azterketa. 3. Hausnarketarako baliogarriak izan zaizkigun tresnen partekatzea.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Aldaialde HLHI (Vitoria-Gasteiz)
Gainontzeko informazioa	http://aldaiaberri.eus/ceip-aldaialde-hlhi-2/



15. ESPERIENTZIA

Izenburua	Begiradatik praktikara:gure eredua eraikiz
Edukia	Zertan datza: Haur Hezkuntzako umeek dituzten ezaugarri, beharrian, adierazteko zein ikasteko moduei buruz aurrera eramandako hausnarketaren ondorioa den gure eguneroko praktika azaldu nahi dugu. Haurrarekiko eta orohar hezkuntzarekiko dugun ikuskera zabaltzeko gogotik ateratako proposamena da. Pedagogia aktiboan sinisten dugu, gure printzipio eta oinarriak zehaztu ditugu eta horietatik abiatuta gure eredu propioa eraikitzen ari gara. Haur bakoitza ezaugarri propio eta bereziak dituen pertsona BAKARRA dela defendatzen dugu, ikasteko gogo eta barneko motibazio itzela duen izaki kapaza, jolasaren bidez eta bitartez garatzen duen ikaskuntza prozesuaren protagonista. Helduok, goian aipatutako guztia kontuan izanik, JOLASTEKO aukera eman behar diogu, hau da, IKASTEKO (behatz, esploratuz, manipulatz, eginez, deseginez, ekinez...esperimentatuz) aukera eskainiko dion MATERIAL (anitz, naturala, aberatsa, kalitatekoa) ugariz hornitutako INGURUNE (seguru, goxo, aberats, naturarekin harremanetan) aparta utzi behar dugu bere eskura. Hau guztia, nola ez, guztion eta planetaren osasuna zaintzako konpromezu irmoarekin. Horregatik guztiagatik, Haur Hezkuntzako espazioa ikaskuntza esperientzia paregaberako gune ezberdinez osatuta dago eta txikienei denbora gehiago eman arren adin ezberdinetako haurrek elkarrekin jarduteko eta gozatzeko denbora luzeak dituzte. Haurrak, egingo duen bide zirrargarri horretan konplize eta lagun izango gaitu gu, helduok.
Ikastetxe tutorea(k)	CPI Ikasbidea IPI (Arratzua-Ubarrundia)
Gainontzeko informazioa	www.ikasbidea.net



16. ESPERIENTZIA

Izenburua	Espazioak zabalduz: gelatik mugimendu autonomora.
Edukia	Zertan datza: Espazio ezer gutxi da bertan bizi diren horiek gabe. Gure eskolan 8 espazio prestatu ditugu, material eta proposamen ezberdinekin. Esanguratsuak, goxoak, material naturalak, errealak, haurren interesekin lotutakoak. Konpetentzien garapena ahalbidetzeko, haurrei aukera ematen diegu mugimendu autonomoan aritzeko, erabakiak eta konpromesua hartuz. Eraldaketa integrala izan da, irakasle izatetik hezitzaile izateko egiten ari garen bidearen partaide egingo zaituztegu. Lan pertsonaletik talde-lanera, hezitzaile taldea norabide berdinean. Eguneroko lanean jarduteko tresnak, baliabideak, dokumentazioa sortu dugu. Lan taldean, esku-hartzeak bateratuz, espazioak diseinatzuz, antolakuntzarako zehaztapenak ezartzen eta behaketa-ebaluaketarako tresnak sortuz. Espesientzia garapena: • Haur hezkuntza etapan eraldaketaren prozesua. Gure printzipioak, gure oinarriak. • Hezitzaile taldearen bateratasunaren bilakaera. • Urteko programazioa: - Esku-hartzea. - Espazioen disenua. - Antolakuntza. - Konpetentzien garapena. - Tresnak: Behaketa. Ebaluazioa. “Entzuten badut ahaztu egiten dut, ikusten badut gogoratu egiten dut, baina egiten badut, ikasten dut”
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Mimetiz HLHI (Zalla)
Gainontzeko informazioa	www.mimetizhlhi.net



17. ESPERIENTZIA

Izenburua	Mugimendu Autonomia eta Ekosistemen antolaketa Haur Hezkuntzan
Edukia	Zertan datza: Manipulazioan eta esperimentazioan oinarriturik, haurren autonomia osoa garatzeko ekosistemak eta eskaintzak diseinatzen eta planifikatzen trebatzea. Esperientzia garapena: Mugimendu autonomorako ekosistemakak eta espazioak antolatzeko eman diren urratsak azaldu eta funtzionamendu eredua bat eskaintzea. 1.Momentua: Esperientzia zertan datzan jakitea, eta eskola-hartzailearen eta tutorearen arteko lan-plana adostea. 2. momentua: Eskola-hartzailean praktika martxan jartzeko aukera diseinatzea. 3.momentua: Prozesuaren eta praktikaren hausnarketa. Etorkizunean esperientzia eskola-hartzailearen ezartzeari buruzko erabakia hartzea
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Felix Samaniego HLHI (Tolosa)
Gainontzeko informazioa	Bideo: Samaniego eskola berritzen 



18. ESPERIENTZIA

Izenburua	Zientzia-hezitzailea jolas librearen dinamikan.
Edukia	Zertan datza: Badakigu Haur Hezkuntzako umeek jolas librearen bidez egunerokotasuneko gauza asko ikasten dituztela eta gainera, jolas libreak bere pentsamendua garatzen laguntzen diela. Gure curriculumean pisu handia hartzen ari da zientziaren gaia. Beraz, egunerokotasuna ardatz hartuta zientziaren ikuspegia eman nahi diegu ikasleei eskaintzen dizkiegun jarduera libre horiei. Haurrak jolas librearen bidez zientziara hurbiltzen lagundu nahi ditugu. Horretarako espazioak, denborak, materialak, jarduera motak, helduaren esku-hartzeak, behaketa eta dokumentatzeko moduak zehaztuko ditugu. Helburua: • Zientziaren ikuspuntutik erakutsi • Libre aukerako espazioak nola atondu. • Ikasleen inizatiba eta ekintzailetza sustatzeko zientzia kutsua duten jarduerak bilatu • Helduaren esku-hartzea zehaztu. Edukia: • Espazio eta materialaren antolamendua. • Umeen ikas-prozesuaren nondik-norakoen ezagupena. • Hezitzailearen rola eta esku-hartzeko moduak. • HHko hezitzaileak, zientziaren ikuspegia erabiliz, haurrentzako probokazioak, galderak, erronkak eta jarduerak planteatzeko gaitasuna.
Ikastetxe tutorea(k)	CPEIP Umandi Ikastola HLHI (Vitoria-Gazteiz)
Gainontzeko informazioa	http://www.umandi.net/



19. ESPERIENTZIA

Izenburua	Haurren ongizatea bermatzeko gakoak bila Haur Hezkuntzan
Edukia	Zertan datza: Haur Hezkuntza etapa dugu pertsonaren bizitzako lehen oinarria eta gurean eskolan haurren garapen osoa eta orekatua ahalbideratzeko azken urteotan metodologia arloko elementu ezberdinak hasi gara kontuan hartzen. Haurra jaiotze hutsagatik, bada nor, subjektu aktiboa da, ez erreakzio-subjektua soilik. Berez dakartza autonomiaren ernamunak; hori bai, helduek eta ingurune baldintzek autonomia horren garapena bultzatzen dezakete, edota oztopatu. Bide horretan, irakaslearen gidaritzak ardatz izateak, haurren ongizatea bermatzeko duten askotariko ekosistemak atontzera igaro gara. Espereintzia garapena: 237/2015 Dekretuak dioten moduan proposatzen den hezkuntza estila ez da “denak aldi berean gauza bera egiten” erakoa, beraz, hezkuntza-tratamendu aktiboa egiteak, haurren garapen-mailak kontuan izateak, haurren apendizai estila errespetatu eta euren beharrik eta interesak kontuan hartzeak... euren ongizatea bermatzera garrantzitsua. Gure bizipen txiki-handiak elkarbanatuz elkarrekin hezkuntza komunitatea saretu nahi dugu. Hain juxtu, haurtzaroan espazioak (askotariko ekosistemak) duen garrantziaz hausnartzeko gonbidapena luzatu nahi dugu. Izan ere, espazioaren lengoia indar handikoa, eta, besteak beste, haurren interesa areagotu eta ingurua arakatzeko grina piztea dakar.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Zaldupe HLHI (Ondarroa)
Gainontzeko informazioa	www.zaldupe.eus



20. ESPERIENTZIA

Izenburua	Zientzia ekosistema Mugimendu Autonomoan
Edukia	Zertan datza: Mugimendu Autonomoan bete betean ari gara HHn. Zientzia eta teknologia konpetentziak garatzeko ekosistema propioak ditugu, HHko bigarren zikloan. Zientziako dimentsio guztiak (bizidunak, bizigabeak, materia eta energia, giza-gorputza, teknologia) lantzeko gune eta materiala zientifikoa dugu. Ikasleek, bakarka edo taldeka, erronkak, arazo-egoerak eta proiektuak garatzen dituzte. Gero, hezitzailearekin, egindakoaren hausnarketa eta transferigarritasuna lantzen da. Talde Handiko Jarduerak ere baditugu. Bertan, aurre-jakintzak partekatu ondoren sukaldeko, baratzako edo esperimentazio jarduerak egiten dira. Saioaren amaieran hausnarketa egiten da. Orain arte ez dugu zientzia maila honetan garatu Haur Hezkuntzan. Esperientzia garapena: Hiru bisita eskaintzen dizkizuegu. • 1goan: oinarri teorikoak ezagutzea eta zientziarako ekosistemak bisitatzea. • 2.ean: diseinu curricularraren berri ematea eta zientziarako ekosistemak bisitatzea. • 3.ean: esku-hartzea, ebaluazioa eta zientziarako ekosistemak bisitatzea. • Horrez gain, eskola bakoitzera joan eta bertan, formazio saio bat emango genuke.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Zumaia HLHI (Zumaia)
Gainontzeko informazioa	012972aa@hezkuntza.net



21. ESPERIENTZIA

Izenburua	SORMENA mugarik gabe: eskolatik bizitzara.
Edukia	Zertan datza: Gure ikastetxea proiektuen eta mugimendu librearen metodologian oinarritzen da. Hortik abiatuta ikasleen sormenari eman zaizkion aukerak anitzak izan badira ere, gaur egun sormenaren garapena funtsezkotzat hartzen dugu. Sormena ikaskuntza prozesuan eskuratutako jakintzak eta garatutako konpetentziak laburbiltzen dituen adierazte modua delako. ➤ Zehar konpetentzia guztiak garatzea: ikasten ikasteko konpetentzia eta izaten ikasteko konpetentzia besteak beste. ➤ Hezkuntzaren zutabe diren aspektu ugari jorratzea. ✓ Elkarbizitza. ✓ Hezkidetza. ✓ Ekimena eta kritikotasuna. ✓ Motibagarriak diren esperientziak. Gure egunerokotasunak ildo hauek jarraitzen ditu: ➤ Autonomiaren garapena. ➤ Mugarik gabeko sormena, material ezberdinak eskuragarri izanik. Bizipen ezberdinetarako aukerak eskainiz. ➤ Auto irudi positiboaren garapena sortutako lanen bitartez. Esperientzia garapena: ➤ Bisita adostuak. ➤ Eskolako esperientzien aurkezpena. ➤ Ekintza eta materialen orientabideak eta aholkularitza.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Amoroto HLHI (Amoroto)
Gainontzeko informazioa	



22. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasgela, ezagutza sortzen eta partekatzen duen komunitatea
Edukia	Zertan datza: • Ikasgelaren ikuspuntu sozial eta komunikatiboa. • Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasgelaren ikuspuntu sozial eta komunikatiboa Helburuak: Helburua da ikasgela begiratzeko eta ulertzeko modua aldatzea, ikuspuntu sozial eta komunikazioan oinarrituta. Ikasleen eskubideak, eskolaren funtzioak, hezitzailearen esku-hartzea... sinesmen horien inguruan hausnartzea. Norbere praktikaren inguruan hausnarketa egin. Ondorioak atera, erronka berriak onartu eta horiei buruz erabakiak hartu. Euskarriak: • Ikasleen gogoak etaproiektuak. • Ikasgela gizarte esparru den aldetik. • Ezagutza, ikuspuntu kulturaletik.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Antzuola HLHI (Antzuola)
Gainontzeko informazioa	http://www.antzuola.hezkuntza.net/web/guest



23. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikastolako hezkuntza eskaintza aldatu eta konpetentzietan hazi, ikaslea hezi (konpetentzietan oinarritutako espazio, baliabide, aprendizaia eta esku-hartze estiloa)
Edukia	Zertan datza: Azken ikasturteetan egindako hausnarketa eta hautaketa prozesuaren ondorioz, hezkuntza prozesua kalitate gehiagoz janzten duen antolamendua diseinatu dugu Lehen Hezkuntzako 3 zikloetarako. Adin artekotasuna lantzeko ziklo bereko ikasleak nahastuta daude gelatan, ikasle bakoitzak duen erritmo eta beharrei erantzun egokiagoa eman nahirik, HH ere printzipio berdinetan oinarrituz ari da eta hala, jarraipena ematen diogu. IKASTETXEAREN ERALDAKETA PROZESUA ETA KUDEAKETA Zutabe edo printzipio hauek oinarri hartuta antolatu dugu: jolasa, manipulazioa eta esperimentazioa, talde lana, sormena eta irudimena, benetako autonomia, ikasleek aukeratzeko aukera izatea, ikaskuntza aktiboa, eginaz ikasi, gaizki egitea ez da txarra... Ikasleak dira norberaren hezkuntza prozesuaren protagonista eta helburu. Aldaketaren ondorioz, ohiko geletan lan egitetik anbienteka antolatutako espazioetara aldatu dugu eta konpetentzia desberdinak garatzeko testuinguru eta baliabide motibagarriak prestatu ditugu ikasleen mesedetan. Horrela bai ikasleek era autonomoan, parte aktiboa izanik, euren hezkuntza prozesuaren protagonista izanik, ikaskuntza egokia, etekingarria, konpetentziala eta esanguratsua landu eta gauzatzen dutela. Anbienteka antolatutako espazioen bidez, konpetentzietan oinarritutako printzipio metodologikoei erantzuten dien antolamendua praktikan dugu eta ikasleek lantzen dutenarekin, oinarritzko konpetentzia denak garatzen dituzte. Anbienteka antolatutako espazioen osagarritasunari esker, curriculumak maila hauetarako eskatzen duena betetzen dugu. Esperientzia garapena: Gure antolamendu curricularra zuekin partekatze, guregana etortzeko hiru bisita eskaintzen dizkizuegu. -1goan: eskolaren ezaugarriak, gure proposamenaren oinarri teorikoak, aldaketa prozesua eta aldaketarako faseak, antolamendua eta baliabideak, fasearen gauzaketa eskola espazioan ikustea. -2.ean: gure proposamenaren diseinu curricularra. -3.ean, ikasleen, hezitzaileon esku-hartzearen eta antolamenduaren ebaluazioa. Azkenik, eskola bakoitzera joan eta LHko klaustroari gure antolamenduarekiko formazio saio bat ematera konprometitzen gara. Bestalde, guk hasitako bidea egin nahi izanez gero, gure eta gurekin aritzen diren aholkularitza eskaintzen dizuegu. Guk sortutako materialak.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai HLHI (Azpeitia)
Gainontzeko informazioa	http://www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net/web/guest



24. ESPERIENTZIA

Izenburua	Hazi, eskola biziz
Edukia	Zertan datza: Diziplina barneko konpetentziak eta zehar konpetentziak garatu, adin aniztasunean, jolasean oinarrituz eta lengoia ezberdinak adierazteko tailerrak eskainiz. Esperientzia garapena: -HH-ko 2. zikloko ikasleak eta LH-ko 1. eta 2. mailako ikasleak sistematikoki tailerretan aritzen dira. 1. saioa errotazioz eta gainerakoa zirkulazio librean. - ETAPA ARTEKO ZUBIA ERA NATURAL BATEAN EGITEN DA. LH3. mailatik hasi eta 6. mailara artekoak ere badute presentzia tailerretan, STEAM, IRAKURKETA, IRRATIA ETA DRAMATIZAZIOAN sakonduz. - Gela arruntak TAILER bihurtu dira. Tailer bakoitzak bereziki diziplina barneko konpetentzia jakin bat garatzen laguntzen du eta gainerako baliabideek zeharkako konpetentziak. ESPazio ETA ASKOTARIKO MATERIALA eskaintzen zaie ikasleei, ikasle bakoitzak dakartzan gaitasunak adierazteko eta lengoia garatzeko. Horrela, subjektu konpetente bihurtuko dira. - Zehar konpetentziak garatzeko bitarteko nagusia ADIN ANIZTASUNA da eta taldekideen arabera, beraien rolak aldatu beharra sentitzen dute. - Ikasleek hautatzeko aukera dutenez, PERTSONA BEZALA HAZI egiten dira, bere buruarekiko ziurrago sentitzen dira eta beraien erabakien ondorioez jabetzen dira. Hazkuntza pertsonala bitartekari guztiengan ematen da. -UMEAREKIKO BEGIRADA aldatu egiten da eta umearen beharrez eta norbere beharrez kontzientzia hartzen da. - FAMILIEKIN eta HERRIAREKIN HARTU-EMANEAN gaude etengabe. Horrela, ikaslea SISTEMA-ren parte sentitzen da. - HAURRAK apendizai prozesuan ZORIONTSUAGOAK izatea lortzen da. - FORMAZIOA, KOORDINAZIOA, EBALUAZIO PARTEKATUA ETA ELKARREN ARTEKO ZAINZA EZINBESTEKOAK dira.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Basakaitz HLHI (Aizarnazabal)
Gainontzeko informazioa	https://sites.google.com/basakaitz.eus/basakaitzherrieskola/basakaitz-herri-eskola http://basakaitz456.blogspot.com/



25. ESPERIENTZIA

Izenburua	STEAM, robotika, irakurketa plana eta elkarbizitza plana garatu Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuen bidez
Edukia	Zertan datza: Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuak (HJA) interakzioetan oinarritutako ikaskuntzaren berrikuntza mota bat dira. HJAen bidez ikasle guztien emaitzak edozein testuinguruan hobetzeaz gain, STEAM, Robotika, Irakurketa eta Elkarbizitza (gaurko gizartean behar diren konpetentzia konplexuak) garatzeko estrategiak ezin hobeak dira. Esperientzia honetan aukeratzeko HJA batzuk eskaintzen dira. Zeintzuk dira aukeratu daitezkeen HJA? Talde elkararreragileak. Ikasle guztien arrakasta errazten duen gela antolatzeko era bat da. Horren bitartez elkarrekintzak areagotzen dira eta ikaskuntza aberasteaz gain gaitasunak garatzen dira ere: Hizkuntzak, STEAM, robotika, TIC, matematikak, irakurketa, ahazkotasuna... Tertulia dialogikoak. Irakurketa Planaren oinarriak dira. Honen bitartez, testu anitzen ulermena, irakurketa eta horren gustu bultzatzen da. Horretaz gain, ahazkotasuna, arloko edukiak, meta-ezagutza, sentimenduak eta baloreak lantzen dira ere. Gatazkak prebenitzeko eredu dialogikoa: • Arauak adosten dira eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen dute. • Biolentziaren inguruan hausnarketa egiten da naturalizazioa gainditzeko eta isiltasunaren legea apurtzeko. • Solidaritatea eta lekukoen parte hartze aktiboa biktimaren aldeko jarrera sustatzen da, baita sentimenduak eta adiskidetasuna ere. • Indarkeriari erakargarritasun oro kentzeko hausnarketa eta lanketa egiten da. Ausarten Kluba: bullying eta genero indarkeriaren kontra ikusleen jarrera aktiboa, adiskidetasuna eta elkartasuna balioetsiz. Landu nahi den HJA aukeraketa hartzaile bakoitzarekin adostuko da . • Aukeratutako HJAaren teoria eta praktika. • Irakurketa Planarekin, Elkarbizitza Planarekin txertatu. • Hizkuntzak, STEAM, robotika, testuak, lantzeko ekintzak. • Gelarako ereduak eta aholkularitza.
Ikastetxe tutorea(k)	CPI Sansomendi IPI (Vitoria-Gasteiz) CEIP Maiztegi HLHI (Iurreta) CEIP Pedro Maria Otaño HLHI (Zizurkil)
Gainontzeko informazioa	Talde elkararreragileak: Inpaktua DBHn, dinamizatzailea, inklusioa, etorkinak. Tertuliak : tertulia literarioak eta ikaskuntza; tertulia ingelesez, tertulia kurrikularrak; tertulia musikalak; tertulia pedagogikoa Eredu dialogikoa: Eredu dialogikoa Sansomendin, Eredu dialogikoa Montserrat de Tarrasan, tertulia indarkeria prebenitzeko



26. ESPERIENTZIA

Izenburua	Konpetentziak garatuz proiektu bidezko ikaskuntzaren bidez
Edukia	Zertan datza: Nola garatzen dira konpetentziak proiektu bidezko ikaskuntzaren bidez? Nola gauzatzen da ebaluazioa horren baitan? Nola diseinatzen ditugu proiektuak? Zein da irakaslearen rola prozesu honetan? Eta ikaslearena? Esperientzia honetan konpetentziak (disziplina baitakoak zein zeharrekoak), metodologia honen bitartez, nola garatu daitezkeen ikusi ahal izango da. Proiektu bidezko ikaskuntza oso metodologia aktiboa da. Ikasleari ematen zaio benetako protagonismoa norberaren ikaskuntza eraikitzeko. Modu honetan gure kurrikulumak eskatutakoari erantzuna ematen diogu, izan ere, metodologia inklusiboa da erabat eta ikasleen interesetatik abiatzen dena. Esperientzia garapena: Lantziego Ikastolan proiektuak aurrera eramateko gauzatzen dugun prozesu osoa eskainiko dugu: • diseinua, proiektuak aurrera eramateko gida • Familiekin partekatutako informazioa, ebaluazioa... • Unean gauzatzen ari garen proiektuak bertatik bertara ikusteko aukera ere eskainiko dugu.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Lantziego Ikastola HLHI (Lanciego/Lantziego)
Gainontzeko informazioa	http://www.gaindegia.eus/eu/node/12480



27. ESPERIENTZIA

Izenburua	Talentuz: sormena eta jakintza txikitatik.
Edukia	Zertan datza: Talentuz proiektua eskola inklusiboak aldarrikatzen duen aniztasun eta berdintasunari erantzuteko diseinaturik dago. Curriculum aberats, ireki eta malguaren bidez ikasleen gaitasunak garatzen ditu Europar Batasunaren gomendioak jarraituz. Nazioartean ospea duten esperientzia eta teoriak kontuan izanik (Montessori, Freinet, Adimen Anitzak, IKKI, elkarrekintzako taldeak, tertuliak...) ikasle guztien konpetentzia eta talentuen garapena bermatzen du modu pertsonalizatuan. Hori guztia lortzeko Talentuz proiektuak zenbait aldaketa eragin ditu Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan. Haur Hezkuntzan - Hezkuntza jardueren eta zaintza jardueren arteko lotura. - Espazioen birmoldaketa: 150 m²ko gela ireki eta bateratuetan ikasgune anitzak sortu ditugu: komunikatiboa, matematikoa, zientifiko/naturalista, teknologiko/digitala... - Irakasleen arteko elkarlana: maila bereko irakasle eta gainerako profesionalak elkarlanean ari gara gela berdinean. - Ikasleen antolaketa: ikasmaila bereko ikasle guztiak elkarrekin daude gela bakarrean. - Jardueren antolaketa: zirkulazio autonomoa eta jarduera gidatuen arteko uztarketa dago, beti ere aniztasunari erantzunez. - Jolas tokien birmoldaketa: jasangarria, irisgarria eta inklusiboa. Lehen Hezkuntza - Gelen antolaketa berria: hiru gela-laborategi maila bakoitzeko: - Hizkuntzen laborategia; Zientzien laborategia; Sormen eta arte laborategia. - Haur Hezkuntzako ikuspegi metodologikoaren jarraipena: espazioen antolaketa bereiztua eta jarduera autonomo-gidatuen uztarketa. - Ikasleek hiru geletan egiten dute lana. - Proiektuen, arazo egoeren eta problema ebazpenen metodologia. - Irakasleen arteko lan bateratu eta koordinatua.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Lekeitio HLHI (Lekeitio)
Gainontzeko informazioa	* OHARRA: Ikas Komunitate proiektuaren eraginez, senideen parte hartzea, boluntarioen lankidetzak, ikasle nagusien laguntza, elkarrekintzako taldeak, tertulia literarioak eta gainerako estrategiekin bat egiten du.



28. ESPERIENTZIA

Izenburua	Bigarren Hezkuntzako ikastetxetan IKT proiektua garatu Software Librea oinarri hartuta
Edukia	Zertan datza: Ikastetxe publikoak garen arren, software pribatua erabiltzen ohituta gaude. Windows, Microsoft Office, Photoshop, Adobe Acrobat Reader eta horrelakoak erabiltzeak, besteak beste, gastua, menpekotasuna, euskararen galera eta pribatutasunaren galera eragiten ditu. Gure eskoletako ikasleen zein irakasleen Konpetentzia Digitala modu kritikoan sustatuko badugu, software librea izan beharko du oinarri gure IKT proiektuak. Izan ere, ikasleak herritar kritiko eta arduratsu izaten lortu behar dugulako eta ez marka kontsumitzaile hutsak izaten. (Ikus arrazoi gehiago https://labur.eus/trB31) Egon badaude aukera libre batzuk. Horietako bat Luberri sistema da. Software librea den Ubuntun (Linux) oinarritua dago, doanekoa eta hainbeste lan ematen diguten birusik gabea. Ordenagailu bati Luberri jartzen diogunean biziberritu egiten da. Esperientzia garapena: 1. Klaustroari Luberri zer den eta zer abantaila dituen erakutsi. 2. Eskolako IKT arduradunekin bildu eta beraiei formazioa eman. 3. Ordenagailuetan Luberri instalatu. 4. Klaustroari formazio saioak eskaini. Honako helburuekin: a. Karpeta eta Artxiboen kudeaketa ezagutzea eskolako sarean (edo hodeian). b. Nabigatzaile bezala Firefox erabiltzea. c. Microsoft Officen ordeztu, Libre Office erabiltzea. d. Acrobat Readeren ordeztu, PDF dokumentu ikuskatzailea erabiltzea. e. Photoshopen ordeztu, Gimp erabiltzea. f. Bideoak editatzeko OpenShot erabiltzea. g. Musika editatzeko Audacity erabiltzea. h. GCompris Suite hezitzaile (HHTik hasita DBHrako joku hezigarriak) ezagutzea. i. Beste hainbat eta hainbat aukera ezagutzea.
Ikastetxe tutorea(k)	IES Antigua-Luberri BHI (Donostia-San Sebastián)
Gainontzeko informazioa	www.antigua-luberri.net alexgabi.blogspot.com



29. ESPERIENTZIA

Izenburua	Scratch ikasketa prozesuan.
Edukia	Zertan datza: Scratch, edonorentzat den programazio-lengoaia, bitarteko hezitzaile moduan erabiltzeko proposamenak aurkeztu nahi ditugu, hizkuntzen apendizaiatik abiatuta. Scratch informatika-aplikazio bat da nagusiki hurrei zuzendua, ordenagailuen programazioaren kontzeptuak esploratzea eta saiakuntzak egitea baimentzen diena. Programatzeko ahalmena egungo gizartean alfabetatzearen zati garrantzitsua da. Scratch bidez programatzen ikastea, problemak ebazteko estrategia garrantzitsuak garatzen dira, proiektuak diseinatzuz, eta ideiak komunikatuz. Scratchen oinarrian hainbat ezaugarri pedagogiko izanda, tresna egokia da gaur egun hezkuntzan behar-beharrezkoak diren hainbat gaitasun lantzeko. Honelako bitartekoak XXI. mendeko eskoletan maizago agertzea etorkizuneko belaunaldientzako oso lagungarri izango da. Hizkuntzen konpetentziak garatzeko dimentsio desberdinak kontuan hartu behar dira eta horien garapenerako bitarteko anitzak eskaini. Scratch sormenez pentsatzen ikasteko, sistematikoki arrazoitzeko, eta lankidetzan lan egiteko tresna eraginkorra da. Horren bidez jarduera esanguratsuak planteatzen dira, ikasleen nahia eta intereseekin konektatzen dutenak. Bakoitza bere konpetentzia- mailatik abiatuta eraikitzen doa ezaguera. Ikasleen artean elkar eragina planteatzen da eta, horren ondorioz, elkarrekin eta elkarri lagunduz ikasten dute. Scratch bidez programa daitezke berezko istorio interaktiboak, jokoak, animazioak, ... eta sortutakoa partekatu. Helburuak - Scratch hezkuntzarako bitarteko moduan ezagutzea eta konpetentzien garapenean izan dezakeen eragin positiboa ulertzea. - Hezitzaileen formazioa handitzea. - Edozein hizkuntza bitarteko bezala erabili curriculumeko alderdi desberdinak garatzeko. - Askotariko alfabetatze-trebetasunak garatzea. - Ikasleen konpetentzia eleaniztuna hobetzea. - Hizkuntza eta teknologia uztartzea. - Elkarlanean aritzeko tresnak erabiltzea. - Aurkezpenetarako tresna digitaletan trebatzea.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Etxaurren Ikastola HLHI (Aiara)
Gainontzeko informazioa	www.etxaurrenikastola.hezkuntza.net https://scratch.mit.edu



30. ESPERIENTZIA

Izenburua	<i>"Flipped classroom"</i> , ikasteko beste era bat: ikaslea protagonista
Edukia	Zertan datza: Zer da Flipped classroom? Ideia oso sinplea da: orain arte, eskolek gelan azalpenak ematen zituen, sortzen ziren zalantzak azaltzen saiatzen zen, eta gero, ikasleek ariketak eta lanak etxean egin behar zituzten. Flipped Classroom metodoarekin, ideia horri buelta ematen zaio: kontzeptu bat azaltzeko orduan, hezitzaileak ikasleek etxean ikusteko tutoretza-bideo laburrak erabiltzen ditu - berak eginikoak edo Interneten aurkitutakoak-. Hau da, ikasleek hezitzailearen azalpena etxean ikusten dute. Horrela, nahi adina aldiz bideoa pausatu, atzera eman edo ikusi ahal dute eta sortzen zaizkien zalantzak apuntatu eta hurrengo klase hasieran galdetzeko aukera dute. Hortik aurrera landutako kontzeptuekin lotutako lanak, ariketak... klasean egiten dira hezitzailearen eta taldearen laguntzaz. Beraz, Flipped Classroomek aprendizaia espazioan metodologia aktiboagoak erabiltzeko aukera eskaintzen digu: talde kooperatiboak, proiektu bidezko aprendizaian, gamifikazioa... Esperientzia garapena: • Martxan jartzeko baliabideak: GSuiteko tresnak (Classroom, YouTube, Site, Drive, Forwularioak, ...) • Zelan egin bideoak? ○ Bideoak egiteko aplikazioak. ○ Bideoak egiteko aholkuak. • Arazoen kudeaketa ○ Zer egin bideoak ikusten ez dituztenean. ○ Zelan jakin ikusi dituztela. • Eta eskola espazioan zer? ○ Talde kooperatiboak. ○ Banakako lana. ○ Proiektuen bidezko aprendizaian. • Familien papera.
Ikastetxe tutorea(k)	IES Lekeitio BHI (Lekeitio)
Gainontzeko informazioa	http://www.theflippedclassroom.es/ 



31. ESPERIENTZIA

Izenburua	STEAM: zientzia eta artea eskutik helduta
Edukia	Zertan datza: - STEAM (zientzia, teknologia, ingenieritza, artea eta matematika) alorrak era transbertsalean eguneroko jardunean txertatzean datza. - Metodo zientifikoa lanerako modu egoki bezala erabiltzean datza. - Eskolako egunerokoan sormenari bere tokia eskaintzean datza. - Emakumeei STEAM alorrekin identifikatzen lortzean datza. Esperientzia garapena: HHn hasi eta LHko 6. maila arte ikasleek STEAM disziplinei dagozkien konpontentziak garatzen laguntzeko adibide praktikoak eskainiko dira. Gainera, eskola bakoitzak duen errealitatetik abiatuta, antzeko praktikak aurrera eramateko aholkularitza eskainiko da. Honetaz gain, Sormen geLab (etorkizuneko gela- Future Classroom Lab) aurkeztuko da eta baita azaldu ere espazio maker hau aldaketa metodologikorako eta STEAMH+en lanketarako duen garrantzia. Eremuak: - Natur zientziak, gizarte zientziak eta musikako zenbait gai robotikaren bitartez lantzeko aukerak ezagutu. - Matematika, sormenarekin batera, Scratch software librearen bitartez lantzeko irizpide eta adibideak partekatu. - Robotika eta programazioa aniztasunari erantzun egokia emateko tresna bezala aurkeztu. - Lanerako proposamen zehatzak eskaintzea: makinak eta energia, ura,... - Ikus-entzunezkoen trataera digitala.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Orokieta HLHI (Zarautz)
Gainontzeko informazioa	https://www.orokieta.eus/ https://www.youtube.com/channel/UCHEKTbBAUyc967HvzLwJSeg?app=desk https://youtu.be/Jnnyqilj_ME



32. ESPERIENTZIA

Izenburua	Eragiketa aritmetikoentzako beste algoritmo batzuk 1. zikloan
Edukia	Zertan datza: Matematika Konpetentziaren garapenean diziplinartekotasun planteamendutik abiatuz, 1 zikloan, alderdi manipulatioari (erregletak, kartak, bingoak...) garrantzia ematen diogu besteak beste, eragiketa aritmetikoentzako beste algoritmo batzuk garatzen ditugu alegia, baita matematika saioetan, matematika hizkuntzaren erabilera zehatzari laguntzen diogu ere. Horrez gainera, matematika-arrazoibideak hitzez azaltzeko edukiak lantzen direnean, norberaren azalpenak adieraztera eta besteen azalpenak entzutera bultzatzen dugu, eta garatu egiten ditugu edukien ulermena, espiritu kritikoa eta komunikazio-trebetasunak. Azken batean, matematikak errealitatea ezagutzeko eta ulertzeko tresna baliagarria den ikuspuntutik hizkuntza-konpetentziari laguntzen dio. Helburuak: 1. Elkarri laguntzea eta elkarlanean aritzea, talde lana sustatuz eta egitura kooperatiboak erabiliz, norbait ulertzea prozesu aktiboa dela ohartarazteko. 2. Ikasleek jarioartasunez kalkulatzeko eta iritzirako kalkulak arrazoiz egitea, kontzeptuak ulertzearen eta kalkuluko konpetentziaren arteko oreka lortzeko. 3. Funtsezko multzoa problemak ebazteko izatea, ikasgelako lanean merezi duen arreta eta denbora eskainiz, eguneroko matematikako lana ulertzeko. 4. Matematika manipulatioa garatzeko materiala sortzea.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Plaentxi HLHI (Soraluze- Placencia de las Armas)
Gainontzeko informazioa	012970aa@hezkuntza.net



33. ESPERIENTZIA

Izenburua	Haur eta Lehen hezkuntzako eskoletan IKT proiektua garatu Software Librea oinarri hartuta.
Edukia	Zertan datza: Eskola Publikoa izanda software pribatua erabiltzera ohituta gaude. Windows, Microsoft Office, Photoshop, Adobe Acrobat Reader... horrek sortzen duen gastu eta menpekotasunarekin. Gure eskoletako ikasleen zein irakasleen Konpetentzia Digitala modu kritikoan sustatuko badugu, software librea izan beharko du oinarri gure IKT proiektuak. Izan ere, ikasleak herritar kritiko eta arduratsu izaten lortu behar dugulako eta ez marka- kontsumitzaile hutsak izaten .(Ikus arrazoi gehiago https://labur.eus/trB31) Linux software askea da, doanekoa eta hainbeste lan ematen diguten birusik gabea. Ordenagailu bati Linux jartzen diogunean biziberritu egiten da. Askoz azkarrago piztu eta itzaltzen da. Berehala erantzuten dio eskatzen diozunari eta ordenagailua lanerako tresna bihurtzen da, ez burukomina emango digun aparailua. Gure proposamena eskolako ordenagailu guztietan Ubuntuko Luberri distroa ikastetxeko domeinuan integratzen da, IRAKASLEAK, IKASLEAK... karpetak mapeatzen dira eta ikasteko aplikazioz ondo hornituta dagoena) instalatzea da. Luberri instalatzen denean, ordenagailuak pizterakoan, segundu batzuek aukera ematen digu Ubuntun edo Windowsen hasteko. Beraz, eskola komunitateko kideen artean bakoitzak bere erritmora egingo du Linuxera pasatzeko pausua. Esperientzia garapena: 1. Klaustroari aurkeztu zer den linux eta zein abantaila dituen. 2. Eskolako IKT arduradunekin bildu eta beraiei formazioa eman. 3. Ordenagailuetan Ubuntu (Luberri) instalatu. 4. Klaustroari saioak eskaini honako helburuekin: a. Karpeta eta Artxiboen kudeaketa eskolako sarean (edo hodeian). b. Nabigatzaile moduan Firefoxa erabili. c. Libre Office erabili Microsoft Officen ordeztu. d. Acrobat Readeren ordeztu PDF dokumentu ikuskatzailea erabili. e. Photoshopen ordeztu, Gimp. f. Bideoak editatzeko OpenShot. g. Musika editatzeko Audacity. h. GCompris Suite hezitzaile (HHTik hasita LHrako joku hezigarriak) ezagutu. i. Beste hainbat tresna askeak ikasmaterialak sortzearen.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Talaia HLHI (Hondarribia)
Gainontzeko informazioa	Talaia Hondarribiko Eskolako weba ir013074ak@talaiaeskola.com



34. ESPERIENTZIA

Izenburua	Jolasen bitartez matematika manipulatioak lantzen
Edukia	Zertan datza: Testu liburuarekin ezinezkoa zaigu logika, arrazonamendua edo manipulazioa lantzea. Astero saio baten jolas hauek erabiliz matematikak erakargarriagoak eta atseginagoak egingo ditugu umeentzat. Mota honetako jolasak: 1- Pentsatzeko jolasak, zoriaren gainetik logika hobesten duten jolasak. 2- Logika, geometria lantzeko jolasak. 3- Jolas dinamikoak, errazak eta arau argiekin. 4- Jolas motibatzaileak, dibertsioa eta pentsamendua elkartzen dituztenak. 5- Eskola programazioetan egon daitezkeen jolasak. 6- HH, LH eta DBH etapetan egiteko jolasak. 7- Erronka NIBELATUAK eta EBALUAGARRIAK JARRAIPEN ORRIAN. 8- Jolas MANIPULATIBOAK, KOOPERATIBOAK eta batzuk formatu DIGITALEAN. 9- Jolas INKLUSIBOAK, ikasle guztiek ASTERO jolasteko. 10- Ikasgelan JOLASEN TXOKOA antolatuko da.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Zelaieta HLHI (Abadiño)
Gainontzeko informazioa	http://www.zelaieta.hezkuntza.net/web/guest



35. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikastetxeen Kudeaketa Aurreratua; Zuzendaritza taldeen aukera, hezkuntza hobetzearen
Edukia	Zertan datza: Esperientzia honen helburua da: kudeaketa aurreratuaren eredua ezagutu eta ezartze bidean jartzea. Horretarako Ikastetxearen inguruko gogoeta prozesua abian jarriko da, indarguneak aurkitzeko tresnak landu eta hobekuntza aukerak bistaratu. Ikastetxe tutoreek ikastetxe hartzailearen errealitatetik abiatuko dira kudeaketa eta funtzionamenduko alderdi nagusiei buruzko gogoeta eta hobetzeko proposamenak bideratzearen. Ikastetxearen autodiagnostikoa eta barne hausnarketa: Ikastetxean bertan, talde txikian eta tresna eroso eta erangikor baten laguntzaz ikastetxearen argazkia egingo da, hau baita hausnarketarako lehen urratsa eta hobekuntzarako abiapuntua. Ibilbide polita egingo da Estrategia, Ikaslea, Familia, Pertsonak, Gizartea eta Berrikuntza elementuetan sakonduz emaitzen analisia eta hobekuntza kultura errotuz. Ikastetxearen barneko hausnarketaren osagarria den Kontraste prozesua zer den ezagutzeko aukera ere bada.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Murumendi HLHI (Beasain) IES Elorrio BHI (Elorrio) IES Lizardi BHI (Zarautz)
Gainontzeko informazioa	http://www.elorrio.hezkuntza.net/eu/ http://www.murumendilhi.hezkuntza.net/eu/ http://www.lizardi.hezkuntza.net/eu/



36. ESPERIENTZIA

Izenburua	Hezkuntza-lidergoa eta ikastetxeen hobekuntzan duen eragina.
Edukia	Zertan datza: Hezkuntza-sistemaren egungo eskaerak (eraginkortasun handiagoa, aniztasunarekiko arreta, aldaketa metodologikoak, etab.) argi dago zuzendaritza-taldeek, irakaskuntza-profila izateaz gain, gaitasunak garatu behar dituztela, kudeaketa, komunitateko parte-hartzea eta lidergo pedagogikoa barne. Zuzendaritza-taldearen lidergoak duen garrantzia ezinbestekoa da proiektu baten garapenerako eta iraunkortasunerako. Baldintza hau ehuneko handi batean bete dute zuzendaritza proiektuak aurkeztu izan dituztelako eta lidergo pedagogikoaren ardura hartu izan dutelako. Proposamen honetan ikastetxearen prestakuntza-eremuetan, tresnetan eta lidergo eginkizunean hobetzeko hausnarketa esparrua eskeintzen da Esperientzia garapena: Lidergo pedagogikoa indartzeko honako ildoak jorratuko ditugu: • Ikastetxea eta komunitatea sistema ireki gisa • Proiektu globalen garapena: Hezkuntza proiektuarekiko koherentzia. Proiektu orokorretik, pertsonetara, pertsonetatik komunitatera. (balioak, kultura) • Ikaskuntza-testuinguruak: Metodologia aktiboak, jolasaren pedagogia, jarduera esanguratsuak, ikasleen autonomia eta erantzunkizuna, gaitasunen garapena ... • Aniztasunaren kultura positiboa: Guztiontzako eskola, aniztasunaren erantzuna et estrategiak, tutoretza ... • Gizarte elkarreragin: Ikasleen parte-hartze aktiboa, adin nahasketa eta bizikidetza • Aurrera egiteko ebaluatzea: jardunari buruzko hausnarketa, feedbackaren garrantzia, egitasmoa, egiturak, teknikak, estrategiak ... • Prestakuntza: Irakasleen gaitasunak, prestakuntza eta gogoeta-ekintza • Komunitatea: parte-hartzea, familiak, ingurunea, komunikazioa ... • Lidergoa eta lidergoak: lidergo jasangarria- banatua, harremanak, mentoring – coaching-feedback, ebaluazioa, prozesuaren ikuspegia bateratua... • Antolamendu egiturak
Ikastetxe tutorea(k)	EEI Okondo HHI (Okondo) CEIP Amara Berri HLHI (Donostia-San Sebastián)
Gainontzeko informazioa	www.amaraberri.org 012184aa@hezkuntza.net www.okondoeskola.hezkuntza.net okondozen@okondoeskola.com www.amaraberrisarea.hezkuntza.net absarea@gmail.com



37. ESPERIENTZIA

Izenburua	Berdinen artean ikasten: Zuzendaritza talde berrien tutoretza
Edukia	Zertan datza: Esperientzia handia duten zuzendaritza-taldeekideen eskarmentua, bizipenak eta jakituria zuzendaritza-taldeekide berrien aholkulari, laguntzaile zein gertuko bidaideak izatea du helburu esperientzia honek. Zuzendari tutoreak laguntza eta orientazioa emango dio zuzendaritzaren lekukoa hartu eta praktika hau eskatzen duten eskola hartzaileei, eguneroko egoera ezberdinei erantzuna ematen lagunduz, zuzendaritzatik zuzendaritzara, era hurbil eta zuzenean. Lidergo sendoa da egungo eskoletan ditugun erronkei erantzuteko giltzarrietako bat. Ikerketek nabarmentzen dute zuzendaritzek eskolen eraginkortasunaren gakoa direla eta, aldi berean, eragin zuzena dutela ikasleen emaitzetan. Zuzendari tutorearen eskutik zerrenda honetako esparru bat edo batzuetan hobetu edo sakontzeko aukera eskainiko zaio zuzendaritza talde berriari: • Administrazioaren aplikazioei etekina nola atera. • Eskolaren antolamendua: eskola kudeatu eta antolatzekeo estrategiak (zuzendarien koadernoak, bileren eraginkortasuna...). • Lidergo pedagogikoa: gizartearen erronkei erantzuna, aldaketa metodologikorako urratsak (praktika onak, eskola inklusiborako urratsak, ikasleen tutoretza eta orientazioa...). • Parte-hartzea: komunitatearen inplikazioa eta konpromisoa, elkarbizitza, hezitzailearen elkarlana, partaide berrien integrazioa... • Berrikuntzarako bideak: kalitatezko lana ahalbidetzea, irizpideak finkatzea eta etengabe berritzeko bideak irekitzea.
Ikastetxe tutorea(k)	CEIP Dunboa HLHI (Irun)
Gainontzeko informazioa	http://www.dunboahlhi.hezkuntza.net/eu/



III. ERANSKINA

"PARTEKATUZ IKASI" ESPERIENTZIETAN PARTE HARTZEKO AKORDIOA

....., 2020koarena.

BILDUTAKOAK

Batetik,....., ikastetxearen izenean. "Partekatuz ikasi" esperientzia bat egiteko dirua esleitu zaio ikastetxeari.

Bestetik,..... Koordinatzailea izango da, ikastetxean. "Partekatuz ikasi" esperientzian tutorearena egiteko izendatu da ikastetxea.

AZALDU DUTE:

I. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak diru-zenbateko bat eman dio ikastetxeari, honako "Partekatuz ikasi" esperientzia hau egiteko:
.....

II. ikastetxea esperientzia horretan laguntzeko tutore izendatu da.

Horregatik, honako hau

ERABAKI DUTE:

1. Lan-egitasmo bat onartzea, akordio honi erantsiko zaiona, "Partekatuz ikasi" esperientziaren bilakaera finkatzeko. Haren barruan, tutorearena egiten duen ikastetxea hirutan joango da gutxienez eskaera egin duen ikastetxera, eta eskaera egin duen ikastetxea behin gutxienez tutorearena egiten duen ikastetxera.

2. Honako betebeharrak ezartzea eskaera egin duen ikastetxeari:

- Ikastetxean esperientziaren bilakaera koordinatzeko arduraduna izendatzea.
- Tutorearena egiten duen ikastetxearekin lan-egitasmoa zehaztea, prozesuaren fase guztiak gauzatzea eta parte aktiboa hartzea.
- Ikastetxe interesduneko kide guztiek esperientzia osoan parte hartzen dutela bermatzea.
- Esperientzian oinarritutako jardunbide bat abiaraztea ikastetxean.
- Prozesua ebaluatzea eta amaierako memoria egitea.
- Esperientzia klaustroari ezagutaraztea.
- Esperientziaren amaieran, ikastetxe gisa erabakitzea ea egokia den ala ez esperientziaren bidez ikasitakoa ikastetxean aplikatzea.
- Berritzeguneko erreferentziazko aholkulariarekin harremanetan egotea, esperientziaren bilakaerari buruzko informazioa emateko.

3. Honako betebeharrak ezartzea tutorearena egiten duen ikastetxeari:

- Ordutegia behar bezala egokitzea eta tutoreei beren lana egiteko malgutasuna ematea.
- Eskaera egin duen ikastetxeari esperientziari buruzko prestakuntza ematea eta esperientzia egiteko beharrezko materiala eta dokumentuak ematea.
- Eskaera egin duen ikastetxera gutxienez hirutan joatea, haren testuinguruaren berri izateko.



- Eskaera egin duen ikastetxea esperientziaren inguruan aholkatzea eta praktika bat abiarazteko aholku ematea.
- Esperientziaren eta praktikaren bilakaeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita eskaera egin duen ikastetxearen inplikazioarena eta parte-hartzearena ere.

4. Eskaera egin duen ikastetxeari esleitutako 800 euroak “Partekatuz ikasi” esperientzia egiteko gastuak ordaintzeko erabiltzea: joan-etorri eta bisitaldien gastuak eta materiala eta dokumentuak prestatzekoak (eskaera egin duen ikastetxearenak zein tutorearena egiten duenarenak).

Bat datozen adierazgarri, hasieran aipatutako egunean eta lekuan, akordio honen bi ale sinatu dituzte aldeek. Ondoren, kopia bat bidaliko diete eskaera egin duen ikastetxeari dagokion Berritzeguneari eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.

Eskaera egin duen ikastetxearen izenean,

Koordinatzailea, tutorearena egiten duen ikastetxearen izenean,



IV ERANSKINA

PROIEKTUEN JARRAIPENA - BIKAINTRASUNERANTZ: PRESTAKUNTZA PROIEKTU INTEGRALAK

IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena					
Ikastetxearen kodea		Udalerrria:			
Eredua/k	☐ A	☐ B	☐ D	☐ H	
Maila/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.
Irakasle kopurua					
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira		
			0		
Ikasle kopurua					
Gela kopurua					

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua:					
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.
Parte hartzen duten ikastaldeak					
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira
					0
Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak					
Emak.	Giz.	Besteak	Guztira		
			0		
Kordinazio-bilerak antolatu dira ikastetxean proiektua garatzeko?					
Maiztasuna					

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jasotako esleipen ekonomikoaren erabilera (Kopurua €)				
Prestakuntza	Materialak	Bidaiak	Besteak	Guztira
				0,00 €

Proiektuan, zer urtetan aurkitzen da ikastetxea?

Proiektuaren garatzeko eta egiteko ordu kopurua

EGINDAKO PRESTAKUNTZA

Garatutako prestakuntza-jarduerak (kopurua)

1	Titulua				
	Emaleak				
	Balorazioa				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Irakasle parte-hartzaileak				
	Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	
				0	
2	Titulua				
	Emaleak				
	Balorazioa				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Irakasle parte-hartzaileak				
	Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	
				0	



PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edoeta ekintzen betetze maila

Proiektuaren alderdi nabarmengarriak

Esan zer inplikazio izan duen proiektuak Heziketa Komunitatean

Agiriren bat egiten baldin baduzu, gehi ezazu beraren deskribapen txikia

Partekatu al da jorratutako praktika klaustroarekin ikasturte bukaeran?

Zer jarraitutasun izango du proiektu honek hurrengo ikasturterako?



PROIEKTUEN JARRAIPENA - BIKAITASUNERANTZ: KURRIKULUM ABERASTEA

IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena			
Ikastetxearen kodea		Udalerria:	
Eredua/k	☐ A	☐ B	☐ D
	☐ H		
Maila/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH
	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.	

Irakasle kopurua			
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira
			0

Ikasle kopurua	Gela kopurua

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua:					
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.

Parte hartzen duten ikastaldek					
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira
					0

Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak			
Emak.	Giz.	Besteak	Guztira
			0

Koordinazio-bilerak antolatu dira ikastetxean proiektua garatzeko? ☐ Maiztasuna

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jasotako esleipen ekonomikoaren erabilera (Kopurua €)				
Prestakuntza	Materialak	Bidaia	Besteak	Guztira
				0,00 €

Proiektuan, zer urtetan aurkitzen da ikastetxea?

Proiektuaren garatzeko eta egiteko ordu kopurua

EGINDAKO PRESTAKUNTZA

Garatutako prestakuntza-jarduerak (kopurua)

1	Titulua				
	Emaleak				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Irakasle parte-hartzaileak				
	Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	
				0	
	Balorazioa				

2	Titulua				
	Emaleak				
	Iraupena (o)		Tokia		
	Aurrekontua				
	Irakasle parte-hartzaileak				
	Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	
				0	
	Balorazioa				



PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edoeta ekintzen betetze maila

Proiektuaren alderdi nabarmengarriak

Esan zer inplikazio izan duen proiektuak Heziketa Komunitatean

Antolatu dira orduz kanpoko ekintzarik?

Agiriren bat egiten baldin baduzu, gehi ezazu beraren deskribapen txikia

Partekatu al da jorratutako praktika klaustroarekin ikasturte bukaeran?

Zer jarraitutasun izango du proiektu honek hurrengo ikasturterako?



PROIEKTUEN JARRAIPENA - BIKAINITASUNERANTZ: PRESTAKUNTZA PROIEKTUAK

IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena					
Ikastetxearen kodea		Udalerrria:			
Eredua/k	☐ A	☐ B	☐ D	☐ H	
Maila/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.
Irakasle kopurua					
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira	Ikasle kopurua	Gela kopurua
			0		

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua:												
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k		☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.						
Parte hartzen duten ikastaldeak						Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak						
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira	Emak.	Giz.	Besteak	Guztira			
					0				0			
Koordinazio-bilerak antolatu dira ikastetxean proiektua garatzeko?											Maiztasuna	

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jasotako esleipen ekonomikoaren erabilera (Kopurua €)				
Prestakuntza	Materialak	Bidaia	Besteak	Guztira
				0,00 €
Proiektuaren garatzeko eta egiteko ordu kopurua				

EGINDAKO PRESTAKUNTZA

Garatutako prestakuntza-jarduerak (kopurua)			
1	Titulua		
Emaleak			
Balorazioa			
Iraupena (o)			
Aurrekontua			
Irakasle parte-hartzaileak			
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira
			0
2	Titulua		
Emaleak			
Balorazioa			
Iraupena (o)			
Aurrekontua			
Irakasle parte-hartzaileak			
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira
			0



PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edoeta ekintzen betetze maila

Proiektuaren alderdi nabarmengarriak

Esan zer inplikazio izan duen proiektuak Heziketa Komunitatean

Agiriren bat egiten baldin baduzu, gehi ezazu beraren deskribapen txikia

Partekatu al da jorratutako praktika klustroarekin ikasturte bukaeran?

Zer jarraitutasun izango du proiektu honek hurrengo ikasturterako?



PROIEKTUEN JARRAIPENA - BIKAINITASUNERANTZ: PARTEKATUZ IKASI

IKASTETXEAREN BALORAZIOA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena					
Ikastetxearen kodea		Udalerrria:			
Eredua/k	☐ A	☐ B	☐ D	☐ H	
Maila/k	☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.
Irakasle kopurua				Ikasle kopurua	Gela kopurua
Emakumeak	Gizonak	Besteak	Guztira		
			0		

EZAUGARRI OROKORAK

Titulua:												
Proiektua ezartzen den hezkuntza etapa/k		☐ HH	☐ LH	☐ BH	☐ BATX.	☐ Helduen Hezk.						
Parte hartzen duten ikastaldeak						Proiektuan parte-hartzen duten irakasleak						
HH	LH	BH	BATX	EPA	Guztira	Emak.	Giz.	Besteak	Guztira			
					0				0			
Koordinazio-bilerak antolatu dira ikastetxean proiektua garatzeko?											Maiztasuna	

PROIEKTUAREN GARAPENA

Jasotako esleipen ekonomikoaren erabilera (Kopurua €)						
Prestakuntza	Materialak	Bidaia	Besteak	Guztira		
				0,00 €		
Zenbat bisita egin du zentro eskatzailea zentro tutoreak?						
Zenbat bisita egin du zentro tutorera zentro eskatzaileak?						
					Bisiten balorazioa	

PROIEKTUAREN BALORAZIOA

Proiektuaren baitako helburu edoeta ekintzen betetze maila		
Proiektuaren alderdi nabarmengarriak		
Esan zer inplikazio izan duen proiektuak Heziketa Komunitatean		
Partekatu al da jorratutako praktika klustroarekin ikasturte bukaeran?		
Zer jarraitutasun izango du proiektu honek hurrengo ikasturterako?		